

TOKIKOM

2015eko martxoa | 146. zenbakia

# ai!kor!

Herriko aldizkaria

Amagoia Guezuraga Bilbao

## Herriko sustraietan





Marketin

Argitalpenak

teef  
totoan



Komunikazioa

Ekitaldiak





**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35  
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

**Kolaboratzaileak:** Iñaki Eguzkizaga, Toti Martinez de Lezea, Idoia Andres, Maria Jesus Kareaga, Aner Mentxaka, Gaizka Peñafiel, Oihane Goienetxe, Sabin Arana, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

**Zuzentzaileak:** Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 7.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Saltzuerdortza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



**BFA  
DFB** Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia



**Txorierriko  
Mankomunitatea**

diruz lagundutako aldizkaria



12 Euskara jendea dokumentala



24 Emakume Cup



30 Inisitue Gazte Asanblada

- 4 Eritxia**
- 5 Gutunak**
- 6 Laburrak eta albisteak**
- 11 Irudietan... San Mameseko arkua, Lezaman**
- 12 Gurean izan da... Euskara jendea dokumentala**
- 14 Gaztea eta... Mikel Valencia, piano-jolea**
- 16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 18 Amagoia Guezuraga, ikerlaria**
- 22 Korrika 19**
- 25 Txorierri ezagutu... Bizargin zirujauak**
- 26 Emakume Cup**
- 28 Kudeaketa Plana, Larrabetzun**
- 30 Berbalagunen txokoa... Txaro Bilbao**
- 32 Taldeak / elkarteak... Inisitue Gazte Asanblada**
- 34 Teknologia**
- 35 Aikorrizketa... Irakurri? Eta zein hizkuntzatan?**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**

**Abelino Arraindegia**

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO  
T: 94 602 75 25-6

**ADARVE KAFETEGIA**

Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

**Aislamientos Derio**

Tabikeak  
Pladurrezko sabaiek eta apalategiak  
Sabai erregistragarriak  
Isolamendu termiko eta akustikoa

Alertza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio  
T: 670 497 928 - F: 944 541 121  
www.aislamientosderio.com



**IÑAKI EGUKIZAGA**  
(Abogadu erretiradua)

Izenburu hori ez da bape egia, baina agintari batzuek danok jihadistak izango bagina lez tratetan gaitue. Lehengo egunean aireportuko kontrol batean, erretiluan erlojua, diruzorroa, jakea, garrikoa, eta abar itxita, eskanerretik pasatzerakoan: *pii!!!* hots egin eban. Metalezko ezer ez neban gainean, praken brageta-  
ren kremailera ez bazan, eta, hara!, miaketa bat goitik behera. Hurrengoan praka be erretiluan itxi behar izango doguz.

## On est tous des djihadistes

Aurrekoa kontu bat da, txikia ez bada; eta bestea, aspalditik ziurtasuna. Askatasuna eta demokraziagaz zer ikusirik ez daukien neurriak hartzen dabilz lege mailan eta beste arloetan.

Adibide bat dogu Europa Batasuneko Justizia Korteak, 2014ko maiatzean, datu elektronikoen kontserbazinoari buruzko 2006ko zuzentarauaz emon eban epaia. Zuzentarau horren arabera, datu guztiak bilduta eta analizata *"pertsonen bizitza pribaduaren konklusio oso zehatzak atararako bide dira: eguneroko ohiturak, noizean behin edo beti ibiltzen diran lekuak, eguneko ibilpideak, euren jarduerak, daukiezan giza harremanak eta horreen inguruko datuak..."*. Uritarrek bialtzen eta jasoten dabezan postak, horreen datak eta maiztasuna, parte hartzen daben webgunetan eta forumetan, giza sareetan emondako eritxiak eta asmoak, sakelako telefonoen lokalizazioa... hori guzti hori

arautzen da zuzentarau horretan, ea muga barik. *"Europako ia herritar guztien oinarritzko eskubideetan esku-hartzea" dala dino epai horrek, eta "hain handia da bere zabaltasuna" ezen "bereziki larritzat hartu behar dala".*

Demokraziaren oinarritzko abiaburu eta eskubide asko guztiz zapalduta gelditzen dira hemen: errugabetasun-presuntzioa, biltzeko eta alkartzeko eskubideak, kontzientzia, eritxi eta mubitze askatasunak, besteak beste.

Badirudi agintari horreentzat ia guztiok jihadistak garela. Erabagitako neurriak benetan larriak dira. Hala eta guzti be dan-danok ez gara jihadistak, esate baterako, Suitzara boltsak diruz beterik eroaten dabezanak, horreek ez. Hor, gainera, ez da begiratzen diru hori nondik datorren. Eskanerrak ez dau holako kasuetan *pii!!!* egiten. Txanponik eroaten ez dabela izango da.

## Pazientzia, eta handia

Agian eszeptiko bilakarazi nau adinak, baina, gainera datorkiguna jasateko, pazientzia-dosi handi samarra beharko dugu, bai, eraman handiko herritarrok. Izan ere, hauteskunde kopuru handi batekin mehatxatu gaitu 2015. urte honek: udal-hauteskundeak, autonomiakoak lurralde batzuetan, eta orokorrak. Hilabete batzuetan, udazkena arte, mamirik gabeko adierazpenak, akusazioak, gezurak, sekula beteko ez diren promesak, mehatxuak eta are irainak irakurri eta entzungo ditugu ordu guztietan heda-



**TOTI MARTINEZ DE LEZEA**  
(Idazlea)

bideetan. Besteak baino hobeak direla baieztatuko digute alkate, zinegotzi, ahaldun eta senatari izateko hautagai guztiak. Filosofoen harria eskainiko digute guztiak, hark konponduko dizkigulakoan ekonomia-krisiko arazoak, genero-berdintasuna, enplegu eze-gonkorra, ustelkeria, abusua, etxebetxeak edo ingurumena. Eta bozka emango dugu geure sinpatien arabera, jakinaren gainean egonik haien promesak letra hila direla, promesten diguten guztitik zerbait behintzat gauzatuko delako esperantzan, uste osoa izanik, hala gertatu ezean, aldatu ahal izango ditugula lau urteren buruan. Edo beharbada ez.

**aldeko**  
hortz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

Urte 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)

—Especialitate guztiak  
zentro bakar batean—  
—Aurrekontuak doan—  
—Especialitateak:  
umeak

astikenemotor  
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

**BIZKARGI**  
TABERNA ETA JANARIA

Urkiola, 6 DERIO 944541655

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikori!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikori.com.

## Erabakimena, nork bere esku

Hitz ederra da erabakimena, ezbairik gabe. Inguruko hizkuntza erromantzeetan, nik dakidala behintzat, ez dute halakorik. Hainbeste adierazteko, hainbat berba behar izaten dituzte hizkuntza horiek, euskarak ez bezala. Baina, hitzaren beraren edertasunaz haratago, euskaldunek dagiten beraren erabileraz nahi nuke zertxobait esan lerrootan.

Izan ere, erabakimenak, edo erabakitze-eskubideak, zehazkiago, nahastu egiten ditu euskaldunak, teoriaren eta praktiaren arteko talka gorgarria leherrarazteraino nahastu ere; hain da inkoherentea jendaurrean zerbait aldarrikatu eta, egunerokoan, intimitatean edo, guztiz kontrakoa gauzatzea, egunean-egunean.

Erabakitzen hasita, dena da erabakigarri, uneoro aritzen baikara erabakitzen, gustatu edo ez. Jaitzen garenetik eta oheratu arte, egunero, hitzetik hortzera aritzen gara deliberatzen. Sarritan, halere, erabakitzen ari garela ohartu ere egin gabe erabakitzen dugu. Taberna honetan ala hartan sartu, ogi hau edo beste hori erosi, lagunekin kaleratu ala familiarekin etxeko epelean gelditu...

Txitean-pitean. Baina ez diegu horrelakoei batere garrantzirik ematen, eta, gaur goizean zuria dela xedatu duguna, arrastian edo gauean beltz bilakatzen dugu, kontrako erabakia hartuta.

Gizarte kontuetan, ordea, serioago edo jokatu nahi ohi dugu, beti. Jakitunago hartzen ditugu erabakiak, edo horretan ahalegindu egiten gara, nolabait, erabakitzen dugunagatik epaituko gaituztelakoan. Bestek gutaz zer dioen kezkatu egiten gaitu, azken batean. Jendarteak,

beraz, axola digu, eta, esaterako, bat egiten dugu denok, euskaldunek, euskardunok eta euskara-gabeek, erabakitze-eskubidearekin, herri bezala zer izan nahi dugun deliberatzeko dugun eskubidearekin, alegia. Eta eskubide hori ukatzen digutela jakinik, batuago eta sendago dirudigu, gainera.

Baina itxura sendo batek barrunbe ahula ezkuta dezake, euskaldun askotxoren kasuan gertatzen den bezalaxe. Hainbatek, kalean-eta, ozen aldarrikatzen dute berez dagokien erabakimena eta, aldi berean, etxean-edo, erdara gorrian bizi dira euren artean. Etxetik kanpo ere, zorigaitzez, ez dira gutxi horrela aritzen direnak, erdara hutsez, euskararen eta Euskal Herriaren eskubideen defendatzailerik sutsuenetakoak direlarik ere. Eta hala erabaki dutelako jokatzten dute horrela, ez inork jazarrita, aspaldian bezala.

Kolono batek baina, bertakotu nahi lukeen kolono horrek, nekez uler dezake horrelakorik, eta erraz, ordea, erabakimena aldarrikatetik urrundu, horregatik epaituko dutela jakinagatik. Koherentziaren izenean euskaraz jabetzen hainbesteko nekea hartu duen kolonoak, agian, ez du asmatu bere kolonia berria hautatzen.

*Kristobal Kolono*



**ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA**  
Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



**SANTI MAMI**  
ALUATARIATZA  
Nerea Pedrosa Gely, 517  
COOP. GARAERA ZAMUDIO-DERIO  
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15  
Faxa: 94 454 12 15

**ETXKO LAGUNTZA INTEGRALA**  
TRUIUONDO ZAMUDIO ZENTRO GERIATRIKOA

Arreta espezializatua, nagusiak zaintzen adituak diren profesionalen eskutik



Hasierako balorazioa. DOAN

689 034 238  
www.naguspea.es

**CONSTRUCCIONES VALDUEZA**  
josevaldueza@gmail.com 609 97 15 14

**ERABERRITZEAK**  
IGELTSEROTZA, ORO HAR  
Fabrika termikoak eta akustikoak



harategia - urdalategia  
**MIGUEL**

ESPEZIALITATEAK:  
URDAIAZPIKOA  
ETA GAZIA



Mikel Deuna, 7 + DERIO 48160 + T: 454 52 94



## Aldaketak, Bilboko trenaren ibilbidean

Ekainetik aurrera, aldagetak izango dira Lezama eta Bilbo arteko trenaren ibilbidean. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak lanak egingo ditu Alde Zaharrean, trena eta metroa lotzen dituen galeku bat bertan eraikitzeko. Gainera, Artxandako tunela ere berrituko dute. Lanek urte bi iraungo dute.

Txorierriko alkateek trenaren erabiltzaileen kezak jaso dituzte eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin batu dira, aldagetek erabiltzaileengan izan dezakeen kaltea ahalik eta gehien murrizteko. Martxoko alea itxi orduko jakin dugunaren arabera, trena betiko moduan ibiliko da Lezamatik Sondikaraino, baina handik Lutxanara abiatuko da trenbide zaharretik. Sangroizeko galekua zabalduko da tarte horretan eta, Lutxanara ailegatzen direnean, bidaiariak metroa hartu ahaliko dute, Alde Zaharrera joateko. Aurreikusitakoaren arabera, Lezamatik Alde Zaharrera arteko bidaia 40 minutu iraungo du eta puntako orduetan tren gehiago ipiniko dira.

Bestalde, Artxandako tunela berritzeko lanak hasten direnean, autobus bat ipiniko da Sondikatik Uribarri Bilboko auzora joateko. Bitartean, bidaiariak trena erabiltzen jarraitu ahaliko dute Loruriraino.

## Derioko jaien aurrerapena

Maiatzaren 14tik 17a arte ospatuko dira San Isidro jaiak Derion, eta jai-batzordeak aurtengo ekitaldi eta gakoetako batzuk eman ditu ezagutzera. Azaldu dutenez, Lainomendi dantza taldeak irakurriko du pregoia, aurten 25 urte bete dituelako.

Jaietan, betiko moduan, adin eta gustu guztientzako ekitaldiak izango dira, hala nola kale-antzerkia, txitxi-burrunzia, ume eta gazteentzako jolas eta jarduerak, dantzak eta artisau azoka. Musika honako hauek ipiniko dute: Santi Matxete, Kakas Blankas, Joxe Replay, Anai-

arrebak, Hieskide, Che Sudaka, Garilak 26, Tea Party, Xaibor eta Fave de Fuca.

Koadrila Txapelketa iaz antolatu zuten lehenengo aldiz, eta, oso txapelketa arrakastatsua izan zenez, aurten ere egingo dute. Izena emateko epea apirilaren 1ean irekiko da, [sanisidrojb@gmail.com](mailto:sanisidrojb@gmail.com), eta apirilaren 16an bilera bat egingo da Kultur Birikan txapelketan parte hartuko duten koadrilekin.

Bestalde, herri-bazkaria domekan egin zuten iaz, eta hark izan zuen arrakasta kontuan harturik, erabaki dute aurten ere egun horretan antolatzea.

Garilak 26 taldea



**Arantza Amondarain Lasa**  
Ginekologoa

Txorierriko etorbidea, 9-4  
48103 Derio

Teléfono eta faxa  
94 454 14 99  
[a.amondarain@euzkadi.net](mailto:a.amondarain@euzkadi.net)

**HARATEGIA**  
**ALBERTO**

Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO

**Alaia**  
fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua  
Bertoko produktua

Tel. 94 452 05 95

**RUBEN**  
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Laseada plaza, 5  
48170 Zamudio  
94 452 14 49

**BIDE-GORRI**  
CAFE-BAR

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WIFI gunea

**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburuntza:  
8:00-13:30

Unbe plaza, 1 behea  
Zamudio  
94 4520419

## Material-bilketa, errefuxiatu sahararrei bidaltzeko

Garazi Astorkiza eta Maialen Atxutegi zamudioztarrak errefuxiatu sahararren kanpamentuetara joango dira ekainaren 5etik 20ra bitartean. Gazteak Irakasle-eskolan dabilta ikasten eta bidaia Gizarte Hezkuntzaren Fakultateko ikasleek antolatu dute. "Bidaia orain dela hiru urtetik hona egiten da. Fakultatean badago neska saharar bat eta berak proposatu zuen ekintza hau egitea. Helburuetariko bat hango umeekin hainbat egitasmo jorratzea da, hala nola tailerrak, jolasak, olinpiadak, lehiaketak... Era berean, errefuxiatuen egoera zuzenean ezagutuko dugu eta, besteak beste, ospitalea, museo eta emakumeen elkarte bisitatuko ditugu", azaldu digute neskak.

Premia handiak daude kanpamentuetan eta bidaiaren beste helburuetariko bat materiala biltzea da, hara eramateko. "Botikak, umeentzako xarabeak, ume

txikientzako arropa eta eskola materiala bilduko ditugu. Horretarako, kutxa bat ipiniko dugu leku hauetan: farmazia, Gorbear mertzaria, liburu-denda eta herriko eskola. Toki bakoitzean material mota bat batuko da eta hori karteletan zehaztuko dugu". Materiala Zamudion bilduko dute hasieran, baina esan digute, kanpaina ondo badoa, hura Txorierri osora zabaltzeko aukera aztertuko dutela. "Bidaian bakarrik 30 kilo eraman ahal dira pertsona bakoitzeko. Beraz, gurekin eraman ezin dugun gauzaren bat balego, hori Sahararen aldeko elkarteek antolatzen dituzten karabanetan bidaliko litzateke".

Garazik eta Maialenek material bilketan parte hartzeko gonbitea egin diete herritar guztiei. "Esfortzu txikia da guretzat, baina oso inportantea, haientzat. Pozik hartuko dute eta eskertuko dute". Ekainaren zain daude, irrikan, beren



abentura txikiari hasiera emateko. "Bada-kigu esperientzia gogorra izango dela, baina oso polita eta aberasgarria ere bai".

David Garcia durangarrak eta Nerea Amilibia donostiarrak irabazi zuten Karraderan mendi lasterketaren II. edizioa. Martxoaren 14an egin zen lasterketa Larrabetzun. Eguraldi oso kaskarra egin arren, aurtun 340 korrikalarik hartu dute parte, iaz baino 50 gehiagok. Lasterketaren aurtengo ibilbidea aurreko urtekoa baino gogorragoa izan da. Parte-hartzaileak Larrabetzu inguratzen duten mendietatik igaro ziren: Gaztelumendi, Arizuriaga, Sanmartingane eta Bizkargi. Lasterketak 32 kilometroko luzera eta 1.630 metroko desnibel positiboa izan ditu.

"Guztiok ibili gara oso pozik: antolatzailerok, korrikalariak, babesleak, boluntarioak, herrikoak... Ibilbidearen zenbait lekutan gudari moztarrotutako lagunak

## Garcia eta Amilibia txapeldun Karraderan II. Mendi Lasterketan



ibili ziren eta, esate baterako, Gaztelumendin edo Bolunburun tiroka ibili ziren jaurtigairik gabeko munizioa erabiliz. Gure ustez, oso lasterketa polita da, eta parte-hartzaileek, batez ere kanpokoek, iritzi bererkoak direla adierazi digute", esan dute antolatzailerok. "Korrikalariak izan dira benetako gudariak, baita Larrabetzuko lagunak ere, betiko moduan izugarrizko laguntza eman digute eta".

**Sailkapenak:**

[www.sailkapenak.org](http://www.sailkapenak.org)

**GORBEIA MERTZERIA**



Gorbeia kalina, 7  
ZAMUDIO  
94 855 00 06

**RPM**  
MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA  
SAREEN MANTENIMENDUA  
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio  
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

**ZAMUDIO MOTOR** IDENTICA



94 452 1616  
94 452 1624

Pol. Torrelagotiti  
Pab. 6, Bloque 3  
48170 ZAMUDIO  
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:  
TXAPA ETA PINTURA



## Udaberriko kontzertuak



Kontzertuak Bizkaiko Abesbatzen Elkartek antolatu ditu eta Txorierriko abesbatzek bertan hartuko dute parte. Gure bailaran bost kontzertu emango dira apirila eta maiatza bitartean.

Gaztelumendi Larrabetzuko abesbatzak apirilaren 18an, 20:00etan, eskainiko du kontzertua Andra Mari elizan. Larrabetzuarrekin batera, Saber Altube Ger-

nikako abesbatza eta Jose Mari Arregi Mungiako abesbatza arituko dira. Eki-dazu Lezamako abesbatzaren emanaldia apirilaren 25ean, 20:00etan, izango da Andra Mari elizan. Mendi Ona Sodupeko abesbatzak eta Bakioko abesbatzak ere kontzertua eskainiko dute bertan.

Sondikan, apirilaren 25ean ipini dute hitzordua, 19:45ean, San Juan Bautista

elizan. Txuma Olagüe abesbatzak kontzertua emango du han, eta haiekin batera, Bilbo Argia otxoteak eta Soinu Bidea Basauriko abesbatzak. Azken kontzertua Zamudion egingo da maiatzaren 23an, 20:00etan, eta San Martin elizan. Anfitrioi Zamudioko Kamara Korala ibiliko da, eta gonbidatuak hauek izango dira: Zozoak Getxoko abesbatza, Mundakako abesbatza eta Enarmonia Zaragozako abesbatza.

### Naturari kantua

Bestalde, Txuma Olagüe abesbatzak *Ensalada de primavera* kantua lehendabiziko aldiz abestuko du jendaurrean, apirilaren 18an, Bilbon; eta apirilaren 25ean, Sondikan. Kantua Julio Vidorreta konpositoreak egin du BBKren lehiaketa baterako, eta bigarren saria eskuratu zuen. "Naturari kantu bat da", esan digute abesbatzatik. "Gogoz entseatzeko gabilta, ikasten apur bat zaila delako. Latinez eta euskaraz dago eginda eta erritmo ezberdinak nahasten ditu. Gainera, ez dugu guztiok aldi berean kantatzen, baizik eta ahots bakoitzak baduela bere momentua eta garrantzia. Hala ere, ziur gaude ondo irtengo dela".

Larrabetzuko Udalak Espainiako bandera ipini behar izan du udaletxean, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak hala aginduta. Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak Larrabetzuko Udala salatu zuen 2013ko uztaillean, Estatuko bandera ez ipintzeagatik, eta aurtengo martxoan jakinarazi du epaitegiak bere epaia. Larrabetzuko Udalak bandera bi ipini behar izan ditu: bata, udaletxeko balkoian; eta bestea, Osoko Bilkuren Areatan. "Amorrotuta gaude, Espainiako bandera arrotza delako larrabetzuar gehienontzat. Plaka bat ere ipini dugu, bandera lege-aginduz ipini dugula adierazteko, eta herria erabakiaren kontra dagoela azaltzeko", esan digu Asun Gaztelu alkateak.

## Legeak aginduta ipini da Espainiako bandera Larrabetzuko udaletxean

Bestalde, Udaltzatzen bando bat zabaldu zuen martxoan, eta, han adierazi takoaren arabera, Espainiako bandera jarri behar izatea ez da lagungarria izango bizikidetzara eta bake soziala lortzeko. "Lege injustu, atzerakoi eta frentista hau arbuia eta salatu egiten dugu. Espainiar Gobernuari exijitzen diogu Larrabetzu herriak modu librean aukeratzeko udal ordezkariei egiten dieten jazarpen politikoa bertan behera uzteko". Larrabetzu ez da agindua jaso duen herri bakarra. Esate

baterako, otsailan, Izaskun Uriagereka Mungiako alkateak dimititu egin zuen udaletxean Espainiako bandera jarri behar zuelako. "Oso erabaki ausarta eta errespetagarria iruditzen zait, baina nik ez dut gauza bera egingo. Izan ere, nik legea betetzen ez badut, hurrengoak egin beharko du. Legea bete behar dugu, erabakitze eskubidea izan arte behintzat. Herriak aurrera egin behar du, bandera batek ez dizkigu sentimenduak aldaraziko".





## Derio, eskauten topagunea, apirilaren 26an

Euskalerriko Eskautak Bizkaia taldeko kideek Derion ospatuko dute aurten beren jaia, San Jorge, apirilaren 26an. Antolatzaileen esanetan, gutxienez 2.000 lagun bilduko dira Ganbeko pagadian, Aldekona auzoaren ondoko landetan. "Eguraldi ona egiten badu, guztira 3.000 pertsona etorriko dira Bizkai osotik", esan digu Egoitz Arruza Derioko abade eta Bizkaiko eskaut taldeko kideak. Derion, gazteak, eskautak, begiraleak eta senideak batuko dira, eta Bizkaiko 27 eskauten taldeek hartuko dute parte topaketetan. Egoitzek azaldu digunez, aspaldi eskau-

ten talde bat egon zen Derion, baina orain dela 20 urte desagertu zen. Abadeak San Jorge jaia aprobetxatu nahi du, eskualdean talde bat abian jartzeko.

Eskautek apirilaren 25ean, zapatua, ailegatuko dira Deriora. Gazteak taldeka banatuko dira eta, asteburu osoan zehar, hainbat ekitalditan arituko dira adinaren arabera. Hala, mintegiak eta mahai-inguruak egongo dira 15 urtetik 18 urte bitarteko gazteentzat, eta zortzi urtetik 14 urtera bitarteko gazteek irteerak egingo dituzte. Meza, bazkaria eta erromeria ere egingo dira.



## Elotxelerriko mendi martxa

Loiuko Udalak Elotxelerriko mendi martxa antolatu du apirilaren 19rako, elkarte hauen laguntzarekin: Hautxoriak Larrondoko jai-batzordea, Danontzat elkarte, eta Grupo alpino Loiu.

Ibilbide bi egongo dira. Batak 14 kilometroko luzera izango du eta zailtasun ertainekoa izango da. Bestea umeentzat izango da, eta bederatzi kilometrokoa izango da. Goizeko 9,30etan abiatuko da Elotxelerriko kultura-etxetik, eta helmuga ere bertan ipiniko da. Bestalde, txitxi-burruntzia egingo da parte-hartzaileentzat, eta antolatzaileek eskertuko dute, izena emateko unean, elikagai ez-galkorren bat eramaten bada. Mendi martxan batzen diren elikagaiak Danontzat Loiuco Elikagai Bankuri emango dizkiote.



**GAMINIZ**  
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio - Bizkaia  
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

**ASADOR FUENTENE** berria  
"lur eta itsasoko baserria"



Gosariak  
Afariak  
Enpresa-bazkariak  
Ekitaldiak  
Jantoki pribatuak

**ESPEZIALITEA:**  
Okela eta arraina  
txingarretan erreta

**LEKUNBI AUZOA 26**  
**ZAMUDIO (BIZKAIA)**  
94 452 23 79  
www.asadorfuenteneberria.com

**ama**  
taberna

Leizola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)  
94 655 93 69

**ERREKA**  
JAT  
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29

## Fracking-aren kontrako taldea sortu nahi dute Txorierrin



Larrabetzuar batzuk kezkatuta dabil-tza *fracking* teknikarekin eta horrek ingurumenean zein gizakion osasunean eduki ditzakeen ondorioekin. Hori dela-eta, bilera bat antolatu dute apirilaren 23rako, iluntzeko 7,30etan, Anguleri kultura-etxean. Bilerak Txorierrin *fracking*aren kontrako talde bat sortzea du helburu, eta Aitor Urresti Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak hartuko du parte bertan. Urresti industria-ingeniarria da, energia berri-erregien espezializatua, eta *fracking* teknikan ere aditua da. Ekitaldian Fracking ez Bilbao plataformako kide bat ere arituko da, eta hark azalduko

du zelan sortu eta antolatu diren teknika honen kontrako plataformak. Antolatzaileek adierazi duteneza, bilera txorierritar guztiei dago zabalik, izan ere, plataformak Txorierriko herri guztietako kideak hartzeko asmoa du.

*Frackinga* edo haustura hidraulikoa gasa erauzteko ez ohiko teknika bat da: ama-haitza (arbela eta eskistoak) apurtuz ateratzen da bertan dagoen gas naturala. Haustura mistoa erabiltzen da horretarako: haitza 5.000 metroraiano zulatzen da bertikalki, eta ostean, zenbait kilometro horizontalki (2-5 km). Harearekin (% 98) eta hainbat gehigarri kimikorekin (% 2)

nahastuta dagoen ura sartzen da presio handiz, eta horren ondorioz apurtzen da haitza eta askatzen da gasa. Nahasketaren zati bat (% 15-85) azalera igotzen da.

### Hautagaien jarrera ezagutu

"Prozesuak hainbat kalte ekar diezazkioke bai ingurumenari, bai gure osasunari. Besteak beste, lurpeko uren kutsadura, airearen kutsadura, berotegi-gasak igortzea, lurrikarak, hots-kutsadura eta paisaia-inkaktuak. Horrezaz gainera, gas-garraioari lotutako inkaktuak ere hartu behar dira kontuan, uraren kontsumoa eta luraren okupazioa", azaldu digute.

Euskal Autonomia Erkidegoan eta isurialde kantauriarrean *fracking* teknika erabiltzeko eman diren baimenak [www.fracturahidraulicano.info/mapa-permisos.html](http://www.fracturahidraulicano.info/mapa-permisos.html) webgunean kontsulta daitezke. Bestalde, Txorierriko plataformarekin harremanetan ipintzeko, mezu bat idatz daiteke helbide elektroniko honetara: [fracking.ez.txoriherri@gmail.com](mailto:fracking.ez.txoriherri@gmail.com). "Informazio-bilerez gainera, hainbat ekintza egiteko asmoa dugu: manifestazioak, kamisetak, banderak eta txapak egitea, finantzazioa lortzeko ekitaldiak... Era berean, hauteskunde garaian gaudela aprobetxatu eta udalerrri bakoitzeko hauta-gaiekin biltzen saiatuko gara, *frackingari* buruz duten iritzia ezagutzeko eta herri-tarrei jakinarazteko. Ekintza hau Bizkaiko gainerako plataformekin koordinatuko dugu".

## Txakolinaren Eguna

t: Idoia Andrés

Hamalagarren aldiz ospatu zen martxoaren 22an, Larrabetzun. Azokan, Larrabetzuko eta inguruko herrietako txakolina izan zen nagusi, eta gainera, omenaldia egin zioten Ciriaco Dañobeitiari. Larrabetzuarrak bizitza osoa eman du mahats artean eta azoketara orain dela 40 urte inguru hasi zen joaten; azoketako beterranoa da, beraz. Txakolinaz gainera, baserritarren hainbat produktu ipini ziren salgai, eta Korrikak eta Gure esku dago ekimenak ere beren lekua eduki zuten bertan. Jendetza batu zen plazan; giro ona, goiz osoan zehar.







## San Mamesetik Lezamara

Futbole, ikurrak oso garrantzitsuak dira. Athletic Clubek hori jakin badaki eta horregatik, zelai berria egin zutenean, arkuari eustea erabaki zuen. Arkua 1953an inauguratu zen, Harmaila Nagusia berri zutenean, eta Iribar, Zarra, Gainza, Rojo, Fidel Uriarte, Dani, Sarabia, Guerrero edo Muniainen jokaldi ederrak ikusi ditu azken 60 urteotan. Hemendik aurrera, aldiz, harrobiako jokalarien golak eta entrenamenduen lekukoa izango da. Bide batez, Txorierriko paisaia ere aldatu egin du.

Argazkia: Gaizka Peñafiel



**SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE**

Bide garbiketa | Hondakinak biltzea eta garraiatzea | Ur eta estolda-sareak zaintzea eta mantentzea | Hiri tresneria mantentzea eta zaintzea | Lorezaintza zerbitzua | Eraikinen eta lokalak barrutik garbitzea | Hondartzak garbitzea | Garbiguneak kudeatzea eta mantentzea | Lurzoruak deskontaminatzea | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

**INBISA** Derio Enpresa-zentroa  
Astintze, 6A - 1. solairua. 48160 DERIO  
[www.inbisaserviciosymedioambiente.com](http://www.inbisaserviciosymedioambiente.com)  
**Tel. 94 424 38 34**

**Nire Autocasion NA**

**IMPORTAZIOA ETA SALMENTA**



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA  
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12  
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92  
[www.nireautocasion.com](http://www.nireautocasion.com) [info@nireautocasion.com](mailto:info@nireautocasion.com)

**Jatetxea SAN ISIDRO**

EUSKO OKULETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOKINTZA APARTA  
**ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK**

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak  
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 88  
Fax 94 454 14 18

Mungaiako etorbidea, 25  
48160 DERIO



# Euskaldunon Historia

EUSKARA JENDEA DOKUMENTALA

Juan Carlos Etxegoien "Xamar"-ek *Euskara jendea* liburua idatzi zuen 2006an, eta duela lau urte Ibaizabal-Mendebalde eta Zenbat Gara kultura elkarteek eleberrian oinarritutako dokumental-sorta bat egiteari ekin zioten. Martxoan, sorta horren azken dokumental biak aurkeztu dituzte Larrabetzun, eta Lutxo Egia egileetako batekin hitz egin dugu horri buruz.

t: Gaizka Eguzkitza

"Euskararen talaiatik, Euskal Herriaren historia edo, hobeto esanda, euskararen hiztun komunitatearen historia kontatzen dugu". Horrela azaldu digu lanaren muina Lutxo Egiak. Lutxorekin batera, Adur Larreak, Xamarrek, Mikel Arredondok, Hibai Castrok eta Lon Fernandezek egin dituzte *Euskara jendea* lana osatzen duten sei dokumentalak. Bakoitzak aro ezberdin bat aztertzen du: *Historiaren atalean; Erromako Inperioan; Aniztasunaren bidean; Mugetan gaindi; Gerren arteko pizkundean; eta Mundua osatzen*.

Euskaldunon historia kontatzeko, dokumentalen egileek hainbat adituren testigantza jaso dute. Besteak beste, Jokin Gorrotxategi eta Jurgi Kintana historialariek, eta Peter Bakker eta Iñaki Camino hizkuntzalariek hartu dute parte filmazioan, baita Belen Bengoetxea eta Jacques Blot arkeologoek eta William Anthony

*"Euskara jendea"  
dokumentalak hiztun  
komunitatearen  
historiaren berri  
ematen du*

Douglass eta Neskuts Izagirre antropologoek ere. Lan-taldeak guztira hiru urte eman ditu dokumentalak egiteko.

"Liburuak zein dokumentalek dibulgazioa dute helburu. Hau da, historia modu errazean azaldu nahi izan dugu. Eta dibulgazioa helburu duten heinean, gure ustez interesgarria da edonorentzat. Horren haritik, material didaktikoa prestatu dugu, batez ere euskalduntze eta alfabetatze prozesuan daudenei zuzenduta, baina baita eskolei zuzenduta ere. Eskola

batzuetan erabiltzen dabiltzala jakin badakigu. Edozeinek deskargatu ahal du material didaktikoa gure webgunetik, [www.euskarajendea.com](http://www.euskarajendea.com)".

Dibulgazioaren xede horri jarraituz, *Euskara jendea* dokumentala zortzi hizkuntzataraz itzuli dute: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana, galegoa, japoniera eta galesa. "Dokumentala Euskal Herritik kanpo bizi direnei, adibidez, diasporako edo munduko Euskal Etxeetako kideei, helarazi nahi genien. Hala ere, erakunde publikoek ez digute laguntzarik eman dokumentala kanpora eramateko, eta, tamalez, etxetik kanpo oso oihartzun txikia lortu dugu. Etxean, aldiz, oso pozik gaude: *Eitb*-n eman dute, 80 hitzaldi inguru eskaini ditugu, oso ondo saldu da dendetan, duela urte bat eta erdi salgai jarri genuenetik..."

Dokumentala Serbiako zinemaldi batera eraman dute, eta Katalunian aurkeztu pen batzuk egin dituzte. "Oso harrera ona





*“Edozein hizkuntzak hegemonia behar du aurrera egiteko, eta euskarak hori lortzea oso zaila da”*

egin zigutenartzat Barzelona aldean. Euskal Herrian, aurkezpenetara etortzen zirenekin ez ziguten ezer esaten, baina Katalunian ez ziguten hitz egiten uzten (kar, kar). Dokumentalak interesa piztu du Katalunian, bertan hainbat euskaldun bizi direlako, eta han ere gutxieneko hizkuntza dutelako. Horrek elkar hurbiltzen gaitu”.

#### “Egoera kezagarria”

Dokumentalaren lehenengo atalak historikoak dira, baina azkenetan, Larra-betzun martxoan ikusi direnetan, egileek lerro soziolinguistiko eta filosofiko batzuk zabaldu dituzte. “Esate baterako, azken atalean XXI. mendea, gaur egungoa, aztertu dugu. Guk ez dugu iritzirik ematen, baina elkarrizketatuek lerro batzuk aipatzen dituzte etorkizunari begira. Besteak beste, esan dute egoera oso kezagarria dela: aurreko hamarkadetan gorakada kuantitatibo itzela izan dugu, baina orain gelditu egin da, eta kualitatiboki galdu egin dugu. Hau da, lehen baino gehiago dakigu euskara, baina lehen baino gutxiago erabiltzen dugu”.

Baina hain txarra da egoera? “Tira, gauza bat bada pozgarria: hizkuntza ez da desagertuko hainbat belaunalditan, transmisioa egiten delako, baina nolako

transmisioa da? Baten batek pentsa lezake euskararen gaur egungo egoera Historian izan dugun onena dela: aurrerapen itzela izan dugu azken hamarkada hauetan, hirietan euskararen presentzia izugarri hazi da, baita hezkuntzan eta komunikabideetan ere... Hala ere, nik guztiz kontrako pentsatzen dut. Erdi Aroan edo Erroma garaian, euskara hizkuntza hegemonikoa zen eta XIX. mendean, Gipuz-



**HORTZ KLINIKA**



Idoia Zubietza

Osasun-zentroa & Hortz-estetika  
HORTZ-IMPLANTEAK - ORTUDONSTZIA-ESTETIKA  
DENTARRAK ZEPHILDUNAK

Dr. Amela kalea, 11 - 1. et. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22  
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

OPTIKA IKUSLAN



Arbolantxa kalea, 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

**LEJARRENE JATETXEA**

Garniolza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46



# “Pianoa eta institutua: hau da ni

t/a: Gaizka Eguzkitza

MIKEL VALENCIA | piano-jolea

## Zelan hasi zinen pianoa jotzen?

Aita oso musikazalea da eta berak animatu ninduen musikan aritzera. Zortzi urte nituela sartu nintzen Leioako kontserbatorioan. Txikitan parkea nahiago nuen musika baino, baina gaur egun oso gustura jotzen dut pianoa (kar, kar).

## Zergatik pianoa?

Hasieran aitzak gomendatu zidan pianoa. Nik, ume guztiek moduan, gitarra jo nahi nuen, noski, baina pianoa ere polita iruditzen zitzaidan eta azkenean pianoa aukeratu nuen. Gaur egun uste dut betebeteen asmatu nuela, pianoa oso soinu-tresna aberatsa delako. Eta hori oso erabilgarria da soinu-tresna osagarri bat aukeratu behar duzunean. Baina ez pentsa, alde txarrak ere baditu pianoak: ezin duzu etxetik atera eta zurea ez den pianoa jo behar duzu askotan. Eta afinazioa ezberdina da pianoaren arabera. Beste musikariek, aldiz, adibidez euren flauta edo gitarra eramaten dute leku guztietara. Ni kanpora joaten naizenean, ordea, teklatura eraman behar dut.

## Orain ikasten zabilta. Zein mailatan zaude?

Alde batetik, Batxilergoko lehenengo mailan nago, Derioko institutuan; bestetik, musika ikasten dut. Musika eskola bukatzen duzunean, Maila Sendotua egin behar da (bost urte) eta ondoren, Gradu Profesionala. Ni azken horretan nago, 5. mailan, eta datorren ikasturtean, Batxilergoarekin batera, bukatzea dut helburu. Hurrengo pausua goi-mailako ikasketak dira.

## Eta Batxilergoa bukatzen duzunean, zer? Musika ala beste karrera bat ikasiko duzu?

Ez dakit, oraindik ez daukat argi. Musika alde batera uzten badut, Matematika edo Ingeniaritzaren bat ikasi nahiko nuke; musikaren goi-mailako ikasketak egiten baditut, aldiz, Musikenen edo horrelako lekuren batean sartzen saiatuko naiz. Musikene Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegia da eta Donostian dago. Modu batean edo bestean, pianoa jotzen jarraituko dut (kar, kar).

## Nolako irtenbide profesionalak ditu piano jolea izateak?

Nafarroan jaio bazen ere, bost urte zituela etorri zen Sondikara bizi izatera. Mikel Valenciak 17 urte ditu eta ia hamar urte daramatza pianoa ikasten eta jotzen. Oraindik ez daki, Batxilergoa amaitzen duenean, musika ikasten jarraituko duen ala ez, baina argi du pianoa jotzen jarraituko duela.





# re bizitza”

Normalean pianoa ikasten dutenak irakasle ibiltzen dira lanean. Horren inguruan behin baino gehiagotan pentsatu dut, bai horixe!, eta ez deritzot txarto. Bestetik, piano-jolea izanda oso zaila da kontzertuak ematea edo orkestra batean sartzea. Izan ere, piano-jole asko daude eta lehia handia da. Gainera, pianoari zuzendutako kontzertuak egon arren, orkestra batek ezin ditu horiek behin eta berriro jo. Baina argi daukat ni poz-pozik biziko nintzatekeela hara eta hona kontzertuak ematen.

## Zenbat ordu ematen duzu pianoan?

Klasean zortzi ordu ematen ditut astean, eta horri gaineratu behar dizkiozu etxean ematen ditudan orduak, hau da, normalean beste 7-10 ordu astean. Institutua eta pianoa: hau da nire bizitza (kar, kar).

## Zaletasuna ogibide bihurtzea zaila izan daiteke. Zer deritzozu horri?

Argi daukat musikari profesionalak izateak nolako aldaketa ekarri ahal didan, eta, nire ustez, oso gustura hartuko nuke. Jakin badakit azkenean musikari profesionala banaiz, egun osoa emango dudala pianoa jotzen.

## Pianoa ez da jotzen duzun soinutresna bakarra...

Ez, txeloa ere jotzen dut. Maila profesionala egiten duzunean, beste soinutresna bat aukeratzera behartzen zaituzte, eta nik, aitaren eta piano irakaslearen



*“Musika ikasi ala Ingeniaritza edo Matematika ikasi, argi daukat pianoa jotzen jarraituko dudala”*

*Mikelek guztira 15-18 ordu ematen ditu astean pianoa jotzen, etxean edo kontserbatorioan*

gomendioari jarraituz, txeloa aukeratu nuen. Egia esan, gaur egun ez daukat denborarik txeloa jotzeko, pianoan erabat kontzentratuta nagoelako, baina egunen batean txeloko gradu profesionala ere egingo dut, agian.

## Presiorik sentitzen duzu jendaurrean kontzertuak-eta eskaintzeko orduan?

Jendaurrean aritzea ez da erraza, normalean entseguak-eta bakarrik egiten dituzulako. Baina tira, ohitura hartzen duzu. Kontzertuetan lasai ibili behar duzu, baina ez lasaiegi, hori ere txarra delako.

## Gustuen inguruan hitz egingo duzu. Musika klasikoari dagokionez, zein

## da gehien gustatzen zaizun konpositorea? Eta musika klasikotik kanpo? Eta musikaz aparte, zer egiten duzu?

Klasikoen artean, Liszt eta Chopin gustatzen zaizkit. Musikari dagokionez, denetarik entzuten dut, baina batez ere rockzalea naiz. Rage against the machine edo Berri txarrak bezalako taldeak gustatzen zaizkit, esate baterako. Batzuetan kantak moldatu edo konposatu egiten ditut, eta hori primeran datorkit belarria egiteko. Azkenik, kirola ere itzel gustatzen zait eta egunero zerbait egiten ahalegintzen naiz. Batez ere erraketa erabiltzaile gisa ahal ditudan kirolak aipatuko nituzke: tenis, frontenis, padel...

### Hemen prestakuntzak lana dakar berarekin

**POLITEKNIKA IKASTEGIA**  
**TXORIERRI**  
S.COOP.  
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional  
Lanbide Heziketa eta Sigeren Irakasgintzarako Ikastetxea

Unrtzagi Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net  
48160 - DEFRIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

### ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK

Apirilaren 21ean eta maiatzaren 5ean eta 28an (18:30etatik aurrera)

### ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK

### LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

- FABRIKAZIO MEKANIKOA**
  - Mekanizazio teknika
  - Erdi mailako zikloa (2 ordu)
  - Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknika
  - Goi-mailako zikloa (2 ordu)
  - Produzioaren Programazio goi-mailako teknika
  - Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- SEGURTASUNA ETA INGURUMENA**
  - Ingurumen-Heziketa eta Kontrolerako goi-mailako teknika
  - Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA**
  - Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknika
  - Goi-mailako zikloa (2 ordu)
  - Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemetako goi-mailako teknika
  - Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- MERKATARITZA ETA MARKETINA**
  - Sailmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknika
  - Goi-mailako zikloa (2 ordu)

# Zu baino ez zara falta eta badakizu!

Hondakin organikoak zaborrontzira bota beharrean, edukiontzi marroietan edo auto-konpostagailuetan uzten baditugu, konposta lortuko dugu eta zabor-poltsa kopurua murriztuko dugu.



## EDUKIONTZI MARROIA



### KITA, NON LORTU?

**Derio:** Kultur Birika

**Larrabetzu:** Liburutegia

**Lezama:** Udaletxea

**Loiu:** Udaletxea

**Sondika:** Liburutegia

**Zamudio:** Udaletxea



\* Saltoki horietan eska ezazu erositakoa poltsa konpostagarrietan jar diezazutela. Derion, Larrabetzun, Lezaman, Loiu edo Sondikan bizi bazara, erakutsi edukiontzi marroiaren txartela (oraindik ez baduzu, eskatu Mankomunitatean); Zamudion bizi bazara, herritarren txartela, besterik ez.

### EZIN DA PLASTIKOZKO POLTSARIK ERABILI!

Lortu poltsa konpostagarriak doan:

|                   |                                                                                                                                                             |
|-------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Derio</b>      | Amalur Delicatessen, Liliak loradenda, Balbi eta Imaz fruta-dendak, Alberdi, Araceli, Bizkarra eta La Moderna okindegiak, eta Dia eta Eroski supermerkatuak |
| <b>Larrabetzu</b> | Koloretakoak fruta-dena, Txispamendi okindegia eta Aliprox supermerkatua                                                                                    |
| <b>Lezama</b>     | Ogiketa, eta Dañobeitia eta Josune janari-dendak                                                                                                            |
| <b>Loiu</b>       | Elizondo janari-denda                                                                                                                                       |
| <b>Sondika</b>    | Yedra loradenda, Esther fruta-denda, Bizkarra eta Zotes okindegiak, Iratxo dastalekua eta Eroski supermerkatua                                              |
| <b>Zamudio</b>    | Aramendi dastalekua, Alaia fruta-denda, Soba janari-denda, Alberdi okindegia, eta Carrefour eta Eroski supermerkatuak                                       |

## AUTOKONPOSTAJEA

Etxean lorategia edo baratzea baduzu, egizu zeure konposta! Eska ezazu kita (autokonpostagailu bat, aireztagailu bat, bizkortzailea eta gidaliburu bat).

**Arraina eta haragia autokonpostagailura bota ditzakezu; edukiontzi marroira, ez.**

**Eta egituratzailea behar baduzu, gune hauetan har dezakezu:**

**Derio:** Rekalde egoitzara sartzeko biribilgunea.

**Larrabetzu:** Goikolako parkinga.

**Lezama:** Garaioitza 183 (ikastetxetik gertu).

**Loiu:** Ortu ekologikoa (Elizondo bidea, 4. zenbakitik gertu).

**Sondika:** Berreteaga industrialdea.

**Zamudio:** Udal hilerriko aparkalekua.



**Info+:**

[www.txorierrikonposta.com](http://www.txorierrikonposta.com)

TEL. 94 454 03 50

[info@txorierrikonposta.com](mailto:info@txorierrikonposta.com)





# Txorierrri, osasunaren alde

Apirilaren 7a Osasunaren Nazioarteko Eguna da. Osasunaren Mundu Erakundeak 1950etik ospatzen du egun hori, eta urtero osasun publikoko lehentasunezko arlo bat lantzen da. Data horren haritik, Txorierrriko Mankomunitateak ere zenbait ekintza antolatu ditu, herritar guztiei zuzenduta daudenak.

## Karrera eta Martxa



Ekintza hau apirilaren 12rako antolatu dugu. Aurren, ibilbide bi egongo dira Loiuko udaletxeko plazatik Sondikako Artebe kiroldegira arte: bata, sei kilometrokoa eta martxa txikia dena (umeei zuzenduta); eta bestea, bederatzi kilometrokoa eta helduei zuzendutako karrera eta martxa dena. Martxa txikiari eta helduen martxari goizeko 10etan emango diegu hasiera eta bakoitzak nahi duen moduan egin ahalko du: oinez, patinez, bizikletaz... Lasterketa goizeko 11etan hasiko da. Probak amaitzen direnean, jokoez eta musikaz gozatu ahal izango dugu. Gainera, Sondikan dauden kiroldegi bietako dutsak erabiltzeko aukera egongo da. Bestalde, auto-

bus bat ipiniko da Sondikatik Loiura joateko. Autobusa goizeko 9etan aterako da eta lasterketa eta martxa bukatzen direnean, Loiura itzultzeko autobusa ere egongo da. Autobusak behar beste bidaia egingo ditu Loiura.

Bestalde, izena emango dutenen artean kamisetak banatuko dira. Orotara 450 kamiseta aterako dira eta haien salmentari esker lortuko den dirua Txorierrin dauden sei Elikagaien Bankuei emango zaie. Izena emateko epea martxoaren 31an bukatu zen, baina apirilaren 12an karrera-martxan bertan ere izena emateko aukera izango dute.

## Txotxongiloen antzerkia

Era ludiko eta irudikor baten bidez, ortuko kolore biziko barazkiek haurren osasunarekin, gatazken konponketarekin eta talde presioarekin zerikusia duten gaiak jorratuko dituzte. Horretarako, sei antzezlan ezberdin eskainiko dira: *Baratzeko sekretua*, *Bruselako aza galdu egin da*, *Txanpinoi iritsi da*, *Edabe miragarria*, *Azenariok tranpa egin du* eta *Kalabazaren arazoa*. Txotxongilo-antzerkia apirilaren 15ean, 18:00etan, ikusi ahal izango da Lezamako ludotekan; eta apirilaren 13an, 17:30ean, Derioko ludotekan.



## Estresa eta antsietatea kontrolatzeko tailerra

Tailer bi prestatu ditugu. Bata apirilaren 13an eta 14an, 19:00etatik 21:00etara, izango da Zamudiotorren eta erdaraz eskainiko da. Bestea apirilaren 29an eta 30ean, 19:00etatik 21:00etara, egingo da Anguleri Larrabetzuko Kultur Etxean eta euskaraz izango da.



# “Asko disfrutaten dot ikertzen”

AMAGOIA GUEZURAGA | Zamudioko historia eta ohituren ikerlaria

Gehienok urteetan Zamudioko bibliotekaria izan dalako ezagutzen dogu, baina, ziur asko, ez dogu jakin Amagoiak herriaren eta herritarren historiarako, genealogiarako, ohituretarako... grina handia daukala. Grina hori orrialde honeetara ekarri dogu.





t/a: Itxaso Marina

### Zertan dauka interesa Amagoia Guezuraga Bilbaok?

Nire herriko historian, etnografian, ohituretan, herritarren lehen zelan bizi ziran jakitean, zertan egiten eben behar... Ahal dodan datu eta informazio guztia batzea gustetan jat, neuk izateko eta jenteari ezagutzera emateko be bai. Zer edo zer ikasteko. Gainera, uste dot Zamudio-rako etorkizunean zer gura dogun aztertze-ko be badala interesgarria. Hau guztia bat-bateko gauzea ez dalako; gu baino lehen jentea bizi izan da hemen.

### Eta nondik edo norengandik jator-tzu jakin-min hori?

Amamagaz bizi ginan, Lecunbarriko Kattalinagaz, eta berak beti kontau izan deuskuz antxinako gauzak, kantak... Amak eta izekoak be bai.

### Noiz hasi zinan Historia, Genealo-gia, Etnografia... munduan sakontzen?

Genealogia asuntoan 1986. urtean ha-si nintzan. Hemengo don Sabino abadeak laguntzen eustan zuhaitz genealogikoa-kaz nondik nora joan behar neban... 1987.-1988. urteetan, Etnografiari lotuta-ko alkarriketak egiten hasi nintzan Et-niker Bizkaia taldeagaz. Jantzera, nekaza-ritza, abeltzaintza eta umeen jolasen gai-neko datuak batu nebazan eta gero *Atlas Etnográfico de Vasconia* beharrean sartu ebezan. Eta Historiari.. ba kuriosidadeak berak eroaten zaitu... Askok gustetan jat dokumentuetan-eta topetan dodana he-rritarren testigantzeagaz batzea.

*"Askok gustaten jat dokumentuetan-eta topaten dodana herritarren testigantzeagaz batzea"*

*"Ikerketea honetan datza: datuak topau, kontrastau... eta ez datu hutsagaz lotu"*

### Adibidez?

Urteera bat antolatu da orain dala gitxi Aranoltza auzoan dagoan karobira, eta nik testutxu bat prestatu neban azalpen eta datu batzukaz. Gauzea da, dokumentue-tan ez dodala karobiaren inguruko datu idatzi zehatzik topau, orokorrak bai, ostera. Esate baterako, baserri biren arteko kontra-tua topau neban eta han zehazten zan soloan, urtean, zenbat kare bota behar zan, baina ezer gehiagorik ez. Gero, Etnografiari lotutako alkarriketak egiten ibili nintzane-an, alkarriketatuetariko batek karobiaren gainean egin eustan berba.

### Non arakutzen dozu?

Derioko artxibategian, Bizkaiko Foru Aldundikoan, Foru Agiritegi Historikoan, Foru Liburutegian... Simancaseko artxiba-

tegia be bai, edo Andaluzia aldeko artxi-bategietan... Batzuetan hara joan behar izan naz, baina aukera dago, gura dozuna lokalizatu, eta informazioa bialtzeko es-katzeko. Eta gero, jakina! herrikoen testi-gantzea be interesetan jat.

### Denpora luzea dokumentu zaha-rren artean...

Bai, denpora asko behar da. Udako opor askotan, orduak eta orduak emon izan dodaz artxibategietan. Baina ez ba-karrik Zamudioko datuak topetan, ez. Belendiz Arratzuko auzokoek, adibidez, laguntzea eskatu eusten auzoko eskola-ren inguruko lantxua egiteko, eta Elo-rrioko batek be nigana jo eban, bere base-riaren historia liburu baten batu gura ebalako, eta nik lagundu neutsan liburua-ren nondik norakoakaz. Eta inoz zamu-dioztarren batek laguntzea eskatu ba-deust, ba, lagundu deustaz, jakina.

### Merezi dau?

Nire ustez, bai. Ameriketara joan zira-nen datuak topetan be asko disfrutatu dot. Ikasi dodalako eta oso gauza inportante-ak topau dodazalako. Eta hara joandako-en seme-alabek, lobek... esan dabalako, beitu, Zamudion akordatu dira nire aita edo aitite behin joan zala, interesa eraku-tsi dabe.

### Gizarte-sareak, ezinbestekoak dira behar horretarako, ezta?

Bai. Hareen loba batzuk Facebooken bidez topau dodaz. Hango artxibategie-tan be arakatu dot, euskal etxeetara deitu... Jentearen laguntzea ezinbestekoa da ha-lako beharretan.



**Iezama**  
consultorio veterinario  
albaitaritzaklinika  
www.consultorioveterinarioiezama.com

J.R. Galdona Madariaga  
BI-515



94 455 56 19

**Medikuntza orokorra**  
**Txertaketak**  
**Parasitoak hil**  
**Mikrotxipa**  
**Kirurgia**  
**EKG**  
**Analisiak**  
**Ospitalizazioa**  
**Ekografiak**



Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

**GOXO-GOXO LOHTIZUN**

Arretzaldetarako zabalik  
Ogile egutietan  
Pestakak murgaratu



Garaioitza, 77c  
48196 Lezama  
94 455 42 72  
goxogoxolohitzun@hotmail.com



**auzoKide**  
Finken administratzailea

**LORENA GAMBOA AGUIRRE**

Txorisoloko 4. beheka B  
48150 SONDIKA

634 410 470  
auzokidefinkas@gmail.com

**Eta zer egiten da hainbeste datu eta informazinogaz?**

Nik dana gordetan dot, jentea hiltzen danean egiten diran gomutagarriak eta guzti. Oso baliagarriak dira datu batzuk ikusteko, familien arteko loturea zein dan jakiteko. Informazino asko eta asko eskuz idatzi eta paperean gordetan dot. Ez dakit, nire sistema da; fidagarriagoa dala uste dot.

**Topau dozun datu esanguratsuren bat esango zenduke?**

Ba, ez dakit esanguratsua dan, baina San Antolineko Kofradiaren gaineko datu bat, 1.500 eta pikukoa, topau nebanean, "subidoi" handia izan zan niretzat. San Tomaseko ermitako jaiak egiteko baime-na noz eskatu zan be bai, Udalaren anto-lamendua zelangoa zan, lehen auzo bakotxak ordezkari bat ebalako... Testa-mentuen zehaztasuna be aitatzekoa da: alabari buruko hau itxiko deusatz, nire ba-serriko hilobian lurra emotea gura dot... Gauza kuriosoa topau neban behin: batek bere ondorengoari ez dakit zenbat "abeja" itxi eutsan, eta ni bueltaka ibili nintzan asuntoagaz, arraroa egiten jatalako. Er-leak? Ba, gero konturatu nintzan, argiza-riak egiteko, jakina, erleena behar zala. Lapurreten gaineko datuak be badira in-teresgarriak. Bati, esate baterako, lapurtu eutsien Gasteizko feriara joiala, eta zorra-kaz lotu zan. Asko disfrutetan da halako gauzak topetan, eta bila zabiltzana ager-tzen ez bada, amorrua emoten dau.

**Eta Ameriketara joan ziranen gai-nean?**

*"Arkitektura eta itxuraz gainera, baserriak genealogia eta han bizi izan diran familiak be badira"*

*"Oso ondare aberatsa dogu Zamudion; hainbat ekitaldi antolatu leitekez haren inguruan"*

Pelayo Aldana Ameriketara 13 urte-gaz joan zala topau neban erregistroan, eta nik pentsau neban: *Baina zer egiten dau 13 urteko mutiko batek itsasontzian, hemendik Liverpoolera, eta handik New Yorkera?* Erregistroan begiratzen jarraitu neban eta amaren lehengusu bategaz joan zala ikusi neban... Askok txarto pa-sau eben han, batez be lehenengo joan ziranek: urteak eta urteak mendian eta herrira bakarrik Gabon inguruan bajau, bakardadea, hezkuntza-arazoak... Seme-alaba edo loben esanetan, batzuek ez eben gauza askorik kontetan Zamudio-



ren inguruan, mingarria zalako, beharba-da. Beste batzuek, osteria, bai... Guk seni-deak doguz han eta etxera etorri ziranean "ventana" gaitik galdetzen euskuen. "Zein leiho?" esaten geuntsen guk. Ba, antza, aitatak kontau eutsen, erromerietara joa-ten zanean, logelako leihoa zabalik itxi ebala, gero ordu txikietan-edo handik sar-

Amagoia 1967. urtean jaio zan. "Garai hatan Zamudio Bilbokoa zan, baina ni zamudioztarra naz, e! Ama Zamudioko Lecumbarri baserrikoa, eta aita, Belarrene Goikoelexaldeko auzo-ko Amaricaguena-mayor baserrikoa". Historian lizentziaua da eta "Noblezia-zuzenbidea, genealogia eta heraldika" masterra dauka eginda. Euskal Kultu-ran graduondokoa be badau. Urteak emon ditu Zamudioko liburutegian eta gaur egun irakasle dabil Elorrioko institutuan.

Antzinako alkartearen presidentea be bada (antzinako.org). "Euskal Herri-ko genealogiston alkarte da, baina Iparraldeko eta Argentinako, Amerika-

## Hurbiletik

ko kideak be badoguz. Berrehun kide in-guru gara. Informazino partekatzen do-gu, datu-basea daukagu eta *Antzina* aldiz-karia argitaratzen dogu urterik bitan. Kideei zuzendutako ikastaroren bat be antolatzen dogu, bisitaren bat...". The Basque Branch alkartearen kidea be bada. "1993. urtean beka bat lortu eta Renoko unibersidadera joan nintzan. Han Lisa Corcostegui eta Maria Barinaga-Tipton ezagutu nebazan eta bertako jentek genealogian eban interesa kontuan har-tuta, alkarte sortzeko proposamena egin eusten. Jenteari laguntzen deusagu eu-

ren arbasoen sustraietan arakatzen; hareek handik eta nik hemendik. Adi-bidez, *Who is who* programea daukie han eta behin Gabilondo abizena eban bat konbidau eben, Mexikotik ailegau zana. Gabilondo Zumarraga eta Ga-biria inguruko abizena da. Ba, ni hara joan nintzan informazino bila. Datuak batu, txostena idatzi eta bialdu".

*Euskalkultura.com* eta *Zamudio orain!* Argitalpenetan kolaboraten dau eta blog bat dauka: zamudioztarraka-tzerrian.blogspot.com.es. Gaur arte liburu bi argitaratu dau: *Elementos heráldicos en la iglesia de San Martín de Arteaga de Zamudio* eta *Txarribodea Zamudion*.





tzeko. Interes handia daukie hemengo gauzetan, amerikarrak diran arren, sus-traiak beste herri batzuetan daukiezalako.

**Herriko baserrien inguruko lantxua be egin dozu.**

Bai. Baserri bakotxa mundu bat da maila guztietan. Baserriak ez dira bakarrik arkitektura eta itxurea, genealogia eta

han bizi izan diran familiak be badira. Baserriko izenak be badira inportanteak, batzuek maizterren izena hartu dabelako. Esate baterako, bere izen ofiziala Lekunbiz behekoa dan arren, guk baserri hori Fuentene moduan ezagutzen dogu. Zergaitik? Bertan iturri bat egon zalako? De la Fuente abizenetik dator, agian?

**Zuk badakizu zergaitia?**

Ez, hori topetan nabil. Ikerketea horretan datza hain zuzen be: datuak topau, hemen eta han ikusi, kontrastatu... eta ez datu hutsagaz lotu.

**Herriko ondarea aztertu dozu. Jakitun gara herrian dagoanaz?**

Ez dakit. Baina badakit oso ondare aberatsa dogula eta hainbat ekitaldi eta urteera antolatu ahal dirala: ermitaz ermita egiten dan moduan, ba, baserriz baserri, auzoz auzo, herritik be bai, eleiza, Zamudiotorre, Kadalso baserria... Penagarria da azken horren egoerea.

**Zure saltsan zabilz artxibategietan; dakizuna, topetan dozuna, besteei jakinarazoten be bai?**

Hitzaldi batzuk emon dodaz, Bilbon egin zan Familia-historiaren gaineko Kongresu batean hartu dot parte, Ondarearen Europako Jardunaldien haritik, igaz Derioko Seminarioan egin zan mahai-inguruan... Lagatzu euskera alkartekoakaz be ibili naz "Ermitaz ermita" ekintzan azalpenak emoten, baserriz baserri be bai, lehen aitatu dodazan jardunaldiak dirala-eta... Gustetan jat. Testu bat irakurri eta "ba, bale" esan daike jentekak, baina gauzak zuzenean ikusten diranean, beste interes bat sortzen da.

**Artxibategian sartzen zaran hurrengoan, zer ikertzeko izango da?**

Uf! Ez dakit! Ahal dodan guztia aztertuko dot. Hainbeste gauza dagoz: eskolea, neskak noiz hasi ziran hara sartzen, irakasleei zelan ordaintzen jaken, baserriak, Larragoiti familia...



**ANTZERKIA**

**BARBANTXO**

Logela Multimedia  
3-8 urte (euskaraz)  
Antzerkia, musika eta marrazki bizidunak

Apirilak, 18 17:00etan  
Prezioa: 6 €





**SONDIKAKO KULTUR ETXEA**  
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)  
Telefonoa 94.453.64.13



**BFA OFB**



**Sarren salmenta**  
www.sarren-salmenta.com

SARRENAK AURKETTU EROSTEN: TXARTELEGIAN  
Ez dugu erantzun berririk emango  
orduz berrazpaga

# Euskahaldundu egin gara!



a: Aner Mentxaka

Korrika ordu txikietan ailegatu zen Txorierrira martxoaren 29an, goizaldean, baina horrek ez zigun euskaltzaleoi lasterketan parte hartzeko gogoia moteldu, ez. Ezta ordua aldatu behar izanak ere, ez horixe! Batzuk ohetik altxatu berriak ginela, eta beste batzuk artean oheratu ez ginela, txorierritarrok bat egin genuen Euskal Herrian zehar, urte birik behin, euskararen alde egiten den lasterketarekin. Eta bat egin genuen Larrabetzun, Lezaman, Zamudion, Derion, Loium, Sondikan eta Erandiogoikoan. Argi eta garbi adierazi genuen gure konpromisoa eta aldarrikatu genuen, zaitasunak zailtasun, oztopak oztopo, euskahaldundu egin gara, Korrikaren aurtengo leloak esan duen moduan.

Larrabetzutik sartu eta Erandiogoi-kotik hartu zuen Bilborako bidea Korrikak. Ordu bi tipi-tapa, Txorierrin zehar.



Arin pasatu zen, baina aurreko egunetan ondo berotu genituen motorrak. Hala, Txepetxa AEK euskaltegiak eta herriko batzordeek eta elkarteek antolatuta, ekitaldi sorta ederra eduki genuen herri guztietan: bertso-afariak, ardo-kata, bertso-saioa, kontzertuak, antzezlanak, korrika txikiak...

Korrika martxoaren 19an atera zen Urepeletik eta hara joateko autobusa ere antolatu zen. Txorierritik autobus bi irten ziren Nafarroa Behereko herritxora. Nola nahi ere, beren kabuz joan zirenak ere hartu behar ditugu kontuan, asteburu luzea izan zenez, ziur gaude askok aukera aprobetxatu zutela, inguruko herrietan egun batzuk emateko. Euskaltzalez gainezka topatu zuten Urepele; eta festa giroa, nagusi. Jai handia, Korrikaren hasieran. Eta amaieran ere bai. Bilbon berriro batu ginelako euskararen alde. Herri txikia da Urepele, Bilbo ere txiki gelditu zen. Euskara nagusi.

**Consulting Sondaika s.l.**

*Sabin Askolizaga*  
Asesur agentzia  
Allianz  
609 473 746

Mibione, 6 behean  
48150 Sondika-Euzkadi

T.: 94 453 18 07  
Fax: 94 453 60 27

**Lzpilen**  
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)  
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

**IRATXO**  
gozotegia

tarta pertsonalizatuak  
trufak  
bolak  
pastelak  
pastak

Mikel Zarate, 2 - 3. lonja • Sondika, 48150 • 94 945 89 19





a: Gabriel Etxebarria



Urepele. a: Ibai Elorriaga



Bertso-saioa, Derion. a: Txepetxa



Korrika txikia, Larrabetzun. a: Idoia Andrés



Custom Dental  
**Txorierri**  
985 471

IMQ  
REGON

Rocio Astorkia Bordegaray  
Kepa Herguedas Manso  
Maria Conde Bilbao  
Ainhoa Rodriguez Mella

Mitxine 6, behe - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)  
T.: 944 711 639 - Larraldiak: 670 985 885 - [www.kolatorierri.com](http://www.kolatorierri.com)

**Ford Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.  
48150 Sondika  
Bizkaia

94 453 25 15  
94 453 39 31

**GALAISIA**  
Estetika eta ile-apaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Elegance beko  
ordutegia

Sabino Arana 1-3. SONDIKA






**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Baserriko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

**BOLALEKU**  
JATETXEA



- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

Gardaketa, 1 - LEZAMA  
94 455 41 10  
Jasoratu  
Facebooken

**Peluteria**  
**Estetika**

94 455 81 44

Argitxeri 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia

**KIMA**  
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gatikotza 99 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77  
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

**Club Hípico Aretxalde**

Pony club • Zaldiketa ikastaroak  
Aisialdirako landak • Apogilo zerbitzua  
Salto • Txangoak • Animalaren heziketa

Telefona:  
IBON - 659 90 75 88  
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA





# Bizargin zirujauak



**TIMOTEO.** Timoteo Mendiguren larrabetsuarra ageri da argazkian; pertsona ezaguna da denontzat, hainbat urte-tan aritu baita bizargin bere ile-apaindegian. Gure garaian nor ez da pasatu haren eskuetatik! Botatzen zigun kolonia ere gogoan dugu. Erretiratzen denean, ez du beste inork hartuko, dirudienez, haren lekukoa. Ez dugu ahaztuko, horratik, antzinako barberu famatu haien ondorengoa dela Timoteo. Jarrai dezala, beraz, nahiz eta batzuek, ile-rik ez izanik, ez dugun haren ogibidearen premiarik.

t/a: Sabin Arana

Erdi Arotik aurrera, oso ezaguna izan da bizargin-lanbidea herri guztietan. Zirujau-lana ere egiten zuten; hau da, bizarra eta ilea mozteaz gainera, odola atera-

tzen zuten izainak erabiliz edo zainak ebakiz, zauriak josten eta osatzen zituzten eta haginak ateratzen zituzten. Izan ere, haien lanbidea medikuarena baino preziatuagoa zen garai batean, hurbilagotzat joko zela-ko, beharbada.

Antzeko lana egiten zuten herri guztietan; hurrengo lerroetan azalduko dugu, hala ere, nolakoa izan zen urteetan zehar Larrabetsuko Urian. Udalak urtero egiten zuen tratua barberuarekin edo bizarginarekin, 1784. urteko agiri batean jaso zenez: "Thomas de Kafranga zirujauak aditzera eman du onartzen duela bere ogibidean aritzeko betebeharra San Bartolome egunetik hurrengo urteko egun berbera arte. Ohitura den bezala, herriko gizon guztiei egingo die bizarra, eta, behar izanez gero, laguntzaile bat ekarriko du horretarako. Hamabost egunik behin joango da Uri eta elizateko etxe guztietara, eta erreal bi kobratuko ditu odol-ateratze bakoitzeko, eta erreal bat, bisita bakoitzeko. Zerbitzua doan emango die, berriz, behartsuei eta ospitalekoiei".

Urtean 400 errealeko soldata ematen zion Uriak, eta aurreko lerroetan aipatu diren diru kopuruak ordaindu behar zituen haren zerbitzua eskatzen zuenak, zerbitzu motaren arabera.

Aspaldi da bereizi zirela bizargin- eta zirujau-lanbideak, eta azkenaldian, guk ezagutu dugunaren arabera, astero joan ohi ziren baserritarrak barberuarenera bizarra egitera, eta epe luzeagoan, ilea moztera. Argi dago oraingo ile-apaindegiek aldatu dutela lanbidea nolabait, baina ez dugu ahaztu behar baserritarren azal zimurtua edertzen saiatu zirela barberuak, ez baitzen batere erraza matrail edo kokote zimurtuetan moztea bizarra eta ilea. Horregatik doakie hemendik omenaldi eta gogorapen txiki hau.



# Emakumezko guztiak, garaile

a: Bizkaiko Pelota Federazioa

Jone Aranguren eta Ane Baraiazarrak irabazi eben Emakume Cup pelota txapelketea. Partidea Zamudio egin zan martxoaren 6an, eta finalean 22-17 irabazi eutsien txapelkunek Jone Goiri-Amair Holgado bikoteari. Txapelketko 3. eta 4. postua be jokatu ziran, eta han Arrate Gazteluk eta Lutxi Fonsekak 22-18 irabazi eutseen Mari Carmen Zubiaurri eta Paula Iturbideri. Txokoan Larrabetzuko emakume pelota alkartean jokatzan dabe zortzi pelotariak.

Zamudioko frontoia gainezka egon zan finalean, eta errebote aldean harmaila osagarri bat ipini behar izan eben. Partidak oso orekatuak izan ziran, eta oso giro polita egon zan. Txapelketea urtariletik otsailera bitartean jokatu zan Larrabetzuko frontoian, eta finala Euskal Telebistak emon eban. "Ekitaldia Euskal Herri osora zabaltzeko aukerea emon deusku telebistak. Txapelketa honetan estreinako aldiz grabau da emakume esku-pelotarien partida bat. Aitzindaria izan da", esan deusku Iker Amaria Bizkaiko Pelota Federazinoko presidenteordeak.

Bai, Emakume Cup oso garrantzitsua izan da, Bizkaiko emakumezkoen esku-pelotako lehenengo txapelketea izan dala. Jonek eta Anek irabazi eben finala, baina txapelketako benetako garaileak emakumezko guztiak dira. "Txapelketearen ondorioz, neska batzuek pelotan jokatu gura dabela adierazo deutsee Txokoan alkarteari eta Bizkaiko Federazioari. Horretan datza txapelketearen arrakastea".







## “Txapela ez da gurea bakarrik, Txokoan taldearena be bada”

ANE ETA JONE | Bizkaiko lehenengo txapeldunak

Ane Baraiazarrak txikitan jokatzeko eban pelotan Larrabetzuko Olarreta eskolan, baina 14 urteaz alba batera itxi behar izan eban, ez egoalako beste neskari jokatzeko. Beste alde batetik, Jone Aranguren betidanik izan da oso pelotazalea, eta hainbat kirol egin ditu. Lankide baten alabeak Larrabetzun jokatzeko ebaluatu eban, bera be animatu zuten jokatzera. Ane eta Jone Bizkaiko lehenengo emakume esku-pelotari txapeldunak dira.

**Zorionak! Zelangoa izan da Bizkaiko emakumezkoen lehenengo txapelketea?**

Hasieran, adiskide arteko kontutzat hartu genduan, ez genduan oso serio hartu. Halanda be, finalerako txartela lortu genduanetik zoramena izan da: finalaren aurkezpena egin behar izan genduan Bilbon, komunikabide batzuek deitu euskuen alkarrizketak egiteko... Finalaren aurreko astean, alkarrizketak emon behar izateagaitik pasau genduan askoz txarrago partidea jokatu behar izateagaitik baino. Eta ziur asko horregaitik hasi genduan hain urduri partidea.

**Finala gogorra izan zan, ezta?**

Bai, hasieran 2-9 izan zan markagailua. Momentu horretan barregarri

**—ANE BARAIAZARRA:**

Larrabetzu, 23 urte, erizaina.

**—JONE ARANGUREN:**

Algorta, 24 urte, irakaslea.

geratzea zan gehien kezkatzen ginduzana. Zorionez, geure onera etorri ginaran eta orekatu egin genduan partida. Eta azkenean, irabazteko gauza izan ginan.

**Larrabetzuarrak jaun eta jaube ibili zarie txapelketan...**

Bai, eskarmentu handiagoa dogu, lehenago hasi ginalako jokatzeko. Horregaitik uste dogu txapela ez dala gurea bakarrik, talde osoarena be badala. Ama batzuek ipini eben martxan Txokoan taldea, eta, hareen ahalaginagaitik izan ez balitz, guk ez genduan aukerarik eukiko pelotan jokatzeko.

**Lehenengo emakume esku-pelotari txapeldunak zarie. Aitzindariak zarie...**

Guk ez dogu horregaitik jokatzeko pelotan. Ondo pasau eta kirola egin baino ez dogu gura. Aspertuta gagoz kazetari guztiok gauza bera galdetzen deuskuelako. Ea honek guztiak balio dauen neska gehiago animetako eta pelotan eskuz jokatzeko hasteko.

**HARTEGIA • URDAITEGIA**

Oikela ekoizten dugu: odolosteak, txorizoa, txistorra, solomoak...

Plater aurrekoiznatu

Golri, 4 - 48150 Sondika - Bizkaia

94 453 16 17

**PSIKOLOGIA PEDAGOGIA**

**UMEAK ETA NERABEAK**

Hitzorduek: **603 755 279**  
ursula@cop.es

Pakearen Pl. 3, behe - 48160 DERIO (Estudios 10 ikastegia)

**LIBRERIA SONDICA**

**LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

**JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN**

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak, prentsa, aldizkariak, liburuak, papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**ASESORÍA**

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1

Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28

48150 SONDIKA (Bizkaia)

# Bazterrak euskeraz blaitzen dabilz Larrabetzun

t: Itxaso Marina / a: Idoia Andres

Azken urteotan, euskerearen erabilera jaitsi egin dan kezka euki dabe Larrabetzun. Jatsiera orokorra izan da, baina igaz eskolak Udalera jo eban, joera hori ume txikiengan be nabaria zala azaltzeko. Udala, eskola, Txinpasmendi guraso alkartea eta Arrekikili euskara alkartea batu ziran, eta arazoari aurre egiteko aukerak aztertu ebezan. Hainbat batzar egin, eta teknikariakaz eta gaian adituak diran personakazu batu ostean, egokiena Larrabetzuko bere Euskerearen Plana izatea zala atera eben ondorio, eta horretarako, aholkularitza-enpresa bat kontratau eban Udalak.

“Euskerearen ezagutzeari eta erabile-reari jagokenez, Larrabetzu arnas-gune bat izan da beti, bai Txorierrirako, bai Bilbo Handirako, eta izaera hori galtzen genbiltzan. Arnas-gune hori izaten jarraitu gura dogu, eta asmoa da hizkuntzea herri honetan ez daitela inoz arazo bat izan komunikaziorako. Indarrak horretara bideratuko doguz. Baina ez bakarrik umeek erderaz egiten dabelako, erlaxau

Herrian euskerearen erabilera bultzatzeko, Kudeaketa Plan bat egin da herritar eta eragileen partaidetzeagaz. Plana eta han zehaztutako helburuak beteteko ekintzak 2015. urtetik 2017. urtera bitartean egingo dira.

*“Gura dauan guztiak euskeraz egin ahal izatea bermatu gura dogu; eta ez dakiana be ulertzeko gauza izatea”*

diran nagusiak be jakitunago egoteko baino, eta baliabideak emonda herriak jakintza zabalagoa eukiteko”, azaldu deuskue Larrabetzun Euskaraz Taldeak.

Aholkularitza-enpresak ebaluazio diagnostiko bat egin eban eta abiapuntu-tzat, Soziolinguistika Klusterrak 2011. urtean egindako ikerketaren emaitzak eta Eusko Jaurlaritzako datuak hartu zituan.

Herritarrek be alkarriketatu zituen, hizkuntza arloan dabezan ohiturak, kezkek eta proposamenak ezagutzeko. Diagnostikotik ateratako datuek eskolan zein kalean, herritarren artean, egoan kezka berretsi eben; izan be, horreen arabera, euskerearen ezagutzea % 73koa da gaur egun Larrabetzun; eta erabilera, % 55koa. Ebaluazio diagnostikoaren datu guztiak Udalaren webgunean (larrabetzu-ko-udala.com) ipini dabez eskuragarri.

“Egia esan, datuak ez dira hain txarrak eta ez gagoz egoera larri baten. Halan be, euskerea gero eta gitxiago erabilteko joera hori eten gura dogu, eta bermatu, etorkizunean, gura dauan guztiak euskeraz egin ahalko dauala. Baita euskalduna ez dana be, euskeraz ulertzeko gauza izango dala; hau da, euskaldun pasiboa izango dala”.





Euskerearen erabilera bultzatzeko asmoa dabela, Kudeaketa Plan bat egin da 2015-2017 urteetarako. Aholkularitza-enpresaz gainera, lehen aitatutako eragileek, ebaluazio diagnostikoaren haritik alkarrizketatuek, herriko alkarteetako ordezkariak eta herritarrek hartu dabe parte Kudeaketa Plana egiteko prozesuan.

### Integrazino elementua

Planean zazpi jarduketa-eremu bereiztu dira: familia, irakaskuntza, euskalduntzea eta alfabetatzea, arlo sozioekonomikoa, aisia eta kirola, kulturgintza eta liburugintza, eta Larrabetzu orokorrean. Jarduketa-eremu bakotxean helburu nagusi bat ipini da eta lehentasunak zeintzuk diran ezarri da. Helburuak beteteko aurrera eroango diran ekintzak be zehaztu dira, eta zein eragilegaz eta baliabidegaz egingo dan behar. Kudeaketa Plana be Udalaren webgunean kontsultau daiteke.

“Helburu asko dagoz, besteak beste, euskerea ohiko hizkuntza funtzionala izatea eskolan zein eskolatik kanpo, euskerearen ezagutzea eta erabilera handitzea baliabideak eskaintzea, merkataritza arloan hizkuntza eskubideak bermatzea, aisia eta kiroleko jarduna euskeraz izatea bermatzea... eta oso garrantzitsua dana, euskerea integrazino elementu gisa erabiltea”.

Helburuoi heltzeko, ez dabe formula barririk asmauko; herrian antolatzen diran ekintzez eta hango eragilez baliatuko dira. “Protagonismoa kulturean, kirolean... dabilan jenteari emon gura deutsegu, gazteei, nagusiei... Esate baterako, nagusiek badaukie altxor linguistiko handi bat, eta istorio asko kontetako eta gainontzeakoz partekatzeke. Horri garrantzia eta iraunkortasunari emoten badeutsazu, egiten dabena garrantzitsua dala sentiduko dabela, eta sortzen diran harremanak be garrantzitsuak izango dira”.

“Bazterrak euskaraz blaitzen saia gaitzen, euri-txikiak ia konturatu gabe busitzen gaituen legez, gauza txikien bitartez, mezu ugari izan dagiguzala inguruan, helburu “handi” hori betetzeko bidelagun. Etengabeko blaitze lana” idatziz dabe Kudeaketa Planaren txostenari amaierara emoteko. Eta hori da hain zuzen be herritarrei helarazo gura deuteseen mezua, euskereak herriko txoko guztiak blaitzen jarraitu dagian.



## Logotipo eta lelo bila

Larrabetzun Euskaraz Aholku Taldeak Logotipo eta lelo Lehiaketara antolatu dau, herrian datozen hilabeteotan egingo diran ekintzei hasierara emoteko. “Euskerearen erabilera bultzatzeko logotipoa eta leloa izan behar dira, eta erabilgarriak Larrabetzuko bazter guztietan, dendetan zein lagun-koadrilen artean... pegatinak edo kartelak egiteko... Gustauko litxakigu logotipo eta lelo horreek baliagarriak izatea euskaldunen, ia euskaldunen eta euskeraz ez dakien arteko loturea estutzeko eta danok euskerara eroateko: dakienak hitz egitera, ikasten dabi-

lana ikasten jarraitzea, eta ez dakiana ikastera eta ulertzera animetera”.

Lehiaketan Larrabetzuko edozein bizilagunek hartu ahalko dau parte, banaka edo taldeka, eta parte-hartzaile bakotzak behar bat baino gehiago aurkeztu ahalko dau. Beharrak apirilaren 30era arte jasoko dira Anguleri Kultur Etxean, arrastiko 4etatik 8etara.

Hiru proiektu finalistak aukeratuko dira. Irabazleari 200 euroko saria emongo deutesie, eta 50 euroko sari bana, beste biei. Behar guztiak Anguleri Kultur Etxean ipiniko dira ikusgai.





**berba  
lagun**

**INFORMAZIOA:**  
**Telefona:**  
 635 75 35 95  
**E-mail:**  
 txorierri.berbalaguna@gmail.com  
**Bloga:**  
 www.aikor.com/txokoa/berbalagun  
**Antolatzaileak:**  
 TOTOAN TEEF  
 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

## “Gura bada, ahal da”

TXARO BILBAO | berbalaguna

Txaro Loiun jaioa da, orain dala 61 urte, eta Zamudiora ezkondu zan. Kimikaria da, baina gaur egun langabezian dago. Burua entretenidua eukiteko, euskerea ikasteari barriro ekiteko erabagia hartu dau.


### Zein da zure harremana euskereagaz?

Nire ama-hizkuntzea da, baina euskeraz etxean bakarrik egiten genduan. Eskolan, gazteleraz; lagunen artean, gazteleraz... Eta akabuan hizkuntzea galtzen zoaz. Beno, ez dozu inoz erabat galtzen, dakizuna hor nonbait dozulako, burmunean, baina berba egiteko erraztasuna galtzen da, gauza batzuk ahazten dira...

### Zergaitik orain ikasi?

Esan behar dot ez dala lehenengo aldia euskaltegian nagoana. Orain dala 36 urte inguru hasi nintzan euskerea ikas-

ten, AEK-k Zamudion emoten ebazan kla-seetara ninoian. Gero itxi egin neban eta ez galdetu zergaitik, ez dodalako gogoratzten. Semea euki neban eta beragaz euskeraz egiten neban. Ikastolan hasi zan eta, hasieran ondo moldatzen baginan be, bera gero eta maila handiagoa hartzen joan zan eta niri kostetan jatan bere erritmoari jarraitzea... Orain dala bost urte kaleratu ninduten beharretik eta pentsau neban: “Bada, ikasten jarraitu behar dozu: dakizuna ez galtzeko eta euskeraz gero eta hobeto egiteko”. Helduen Hezkuntzara joan nintzan, Deriora, baina es-





kola astean behin baino ez dabe emoten eta gitxi irudituta jatan. Aurtengo ikasturtean, Berbalagun egitasmoan hasi naz eta han animau ninduen euskaltegian izena emotera. Urtarrilean hasi naz.

#### Pozik?

Bai, ez da oso gatxa niretzat eta uste dot nahiko ondo moldatzen nazala. Gehien kostetan jatazanak idazlanak eta berba egitea dira. Erderaz pentsetako joerea dodalako dala uste dot, eta gero itzulpena ondo egiten ez dodalako, beharbada. Oraindik be asko daukat ikasteko!

**Bizkaiera ama-hizkuntza dozu, eta euskaltegian batueraz ikasten da. Nahaste-borraste handia?**

Oraingo honetan ez hainbeste, baina aurrekoan bai. Aditz batzuk ezbardinak ziran, atzizki batzuk... Interesgarria da euskera batua egotea, baina bizkaiera ahaztu barik. Eta bizkaiera be modu egokian irakatsi eta ikasi behar da. Euskaltegian, zerbait ikasten dogunean, "Bada, nik hori era honetan esaten dot" – dino batek; "eta nik beste era honetan", beste batek. Eta hori oso ondo dago, gurea ez galtzeko.

**Dino euskera oso gatxa dala ikasten.**

Bai! Hainbeste aditz, atzizkiak, plurala, singularra, mugagabea... baina horregaitik be bada hain aberatsa, ezta? Ingelesa be banabil ikasten, eta askoz errazagoa da. Dana dala, datorren ikasturteari begira, arreteak bakarrik euskeran ipiniko dot, ahalik eta ondoen ikasteko.

**Beno, prisarik ez dozu, ez dozulako titulurik aterako...**

Ez, ez! Nik nire beharra eginda daukat dagoaneko, eta orain beste etapa baten nago.

#### Helburua?

Batez be praktikau behar dot. Berbalagunez eta ikaskideez gainera, lagun batzuk egin daiket euskeraz, senarragaz, semeagaz... Herrian be badodaz aukerak,

*"Gehien kostetan  
jatazanak  
idazlanak eta  
berba egitea dira"*

*"Interesgarria da  
euskera batua egotea,  
baina bizkaiera  
ahaztu barik"*

baina batez be jente gazteagaz, nagusiok kalean erderaz egiteko joerea dogulako.

**Zertan laguntzen deustu euskerea ikasteak?**

Beti pentsau dot, erretiroa hartu ondoren, neure burua zerbait eginez entreteniduko nebala: ikasten, kirola egiten... Eta horretan nabil, erretiroa hartu baino lehen bada be... Egia da ikastea lehen baino gehiago kostetan dala, baina gura bada, ahal da. Gainera jentea ezagutzen dozu eta beste giro baten sartzen zara. Bestalde, nire herriaren hizkuntzea da, nire ama-hizkuntzea, eta uste dot ikasi behar dodala. Nire adinako jentea animauko neuke euskera ikastera, gatxa izan arren merezi dauelako.

Unibertsitatea,  
inguruko gizartearekin  
inplikatzeko ere bada.

**erronkarako #prest**

Irune Salterain,  
Lehen Hezkuntza, 4. maila.

**GRADUKO ATE IREKIAK**

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**ARRASATE · APIRILAK 16**  
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

**DONOSTIALDEA · MAIATZAK 9**  
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

**BILBAO · APIRILAK 16**  
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

**BIDASOA · MAIATZAK 9**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**ESKORIALZA · APIRILAK 25**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA · APIRILAK 25**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
Basque Culinary Center

**DONOSTIA · MAIATZAK 23**  
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

**902 110 436**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

## Datorrena

**–Apirilak 24:** Berbalagun afaria, Galbarriatuko txokoa (Zamudio), 21:00etan. Izena ematea: apirilaren 20ra arte.

t: Itxaso Marina / a: IGA

# 20 urte kalean

## INISITUE GAZTE ASANBLADA

Ospakizunetan dabil Inisitue Zamudioko Gazte Asanblada; izan be, aurtengo apirilean 20 urte beteko dira gazteen alkartea sortu zantetik. Zamudioko Gazte Asanblada (ZGA) izenagaz hasikeran, eta Inisitue Gazte Asanblada (IGA) moduan orain dala zazpi urtetik hona, hamar-kada bi daroaz herriari bizitasuna emoten, eta gazteen beharrezane, ahotsa.

"Besteak beste, helburu honeek ditu IGAK: herriko gazteak aktibatzea, gazteak biltzeko toki autogestionau bat eskuratzzea, feminismoa bultzatzea eta euskal kulturari lotutako ekitaldietan parte hartzea", Maider Aretxabaleta halan hasi da taldearen ildo nagusiak azaltzen. Ekintza hezigarriak antolatzen ditue; esaterako, hitzaldiak eta antzezlanak; ekintza aktibitateak: udako zinema, urteerak, futbol txapelketea, musika kalejirak...; eta ekintza erreibindikatzailerak: feminismoari lotutakoak, gazteen egoera estua salatze-koak... "Uste dogu gauza gitxi egiten dirala gure adin-tartean pentsautia, edo behintzat gitxi batzuek egiten dabela. Ondorioz, geu gara gazteak aktibatu eta ekintza ezbardinetan parte hartzeri animaten doguzanak. Gure jardueria garrantzitsua da, inork baino hobeto ulertzen dogulako zein dan gure egoera".

Zamudio asko aldatu da 20 urtean, fisikoki zein kultura eta aisialdi arloan. "Gure garaian ez egoan ezer", esan deusku Ane Peral ZGAren sortzaileetarikoa. "Gazteek ez genduan non bildu, alkarregeaz egon eta geure beharrezan-eko asetzeko. Eta halango mobimendu bat sortu zan eta batzuk bildu ginan, helburu bat genduala: lokal bat lortzea, kultura arloko ekintzak egin ahal izateko". Hogeit urte pasa ostean, lokal barik jarraitzen

dabe. "Kalean biltzen gara, herriko plazan edo eskolako patioan", aitatu dau Maiderrek, "Urte asko daroaguz lokal autogestionau baten atzetik. Batzeko lekua izateaz gainera, ezinbestekotzat jotzen dogu, urteetan bildutako materiala han gorde-teko. Era berean, askotan arazoak izaten doguz ekintzak aurrera eroateko, ez dogulako egitura finko bat".

Aurreko belaunaldietako kideak be plazan edo eleiza atarian batzen ziran, barikuro. "Bakotzak bere ekarpena ekarri, eta gero zerbait egiten genduan guztion artean. Kalejira asko egiten genduzan, etxeko tresnak-eta erabilita, gura gendualako herriak jakitea hor gengozala, behar egiteko gogoagaz". Okupazioari

lotutako ekintza batzuk be egin zituen. "Bilera agindu bai baina bilera hori inoz ailegaten ez zalako, Udaletxeko teilatura igon genduan, udal lokaletara sartu ginan, antxinako udaletxeko bulegoetara, orain gazte estazinoa danera... Ondorioak ez ziran oso gogorak izaten: polizia etorri, urtenazo eta kitu. Gauak be emoten genduzan plazan, kanpaldian".

### Autogestinoa

Nerea Arregik ZGAren azken urteak eta IGAREN lehen urratsak bizi izan zituan. "ZGAK lortu ebana herriari egundoko bizitasuna emotea izan zan. Halan bada, gaur egun antolatzen diran ekintzetariko asko ZGA hasi zan bultzatzen; esate bate-



*"Herriko gazteak aktibatzea, lokal autogestionau bat, feminismoa eta euskal kultura doguz ardatzak"*

*"Gure jardueria garrantzitsua da, inork baino hobeto ulertzen dogulako zein dan gure egoera"*



rako, sasi-martxoa, Olentzero Eguna, San Joan, urteerak herritik...". "Eta horri esker, gazte mobimenduak eragin handia euki dau Zamudion", ganeratu dau Mainerrek.

Autogestinoa gazte asanbladearen ardatz nagusietariko bat izan da hasikeratik. "Finantzazinoa lortzeko, txosnea ipinten genduan, txiskeroak saldu, kamisetak... Jentea behar egiteko prest egoan, musu-truk. Gazte Egunaren haritik antolatutako kontzertuak egun horretan bertan txosnan ateraten genduan diruagaz ordaintzen genduzan... Sorgailu bat ipini behar genduan elektrizitatea izateko, eta, jaia amaitzen zanean, dana garbitzera", gogoratu dabe Anek eta Nereak. "Guk laguntza apur bat gehiago daukagu gaur egun. Herriko alkarte batzuek ahal daben guztietan laguntzen deuskue, eta Udalak argindarra ipinten dau Gazte Egunean. Garbiketarik be ez dogu egin behar", aiatu dau Mainerrek. "IGAn 15 gazte inguru gagoz, baina badagoz beste gazte asko, alkartekoak ez diranak, baina beti laguntzeko prest dagozanak".

Gazte Asanbladearen lehengo kide biek indartsu ikusten ditue gaur egungo kideak, gogoagaz. "Mobimendu bat dagoan heinean, eta gazteak euren kezkak eta ideak aurrera eroateko batzen badira, ba hori positibotzat hartu behar da beti", esan dau Nereak. Halan be, IGAn beharra ez da Zamudiora bakarrik mugatzen, Txorierri osora zabaltzen da. "Txorierriko



gainerako gazte alkarreakaz batu gara ekintzak batera antolatzeko", azaldu dau Mainerrek. "Irailean, Txorierriko I. Gazte Topaketea egin zan Lezaman, eta "Gazteak Txorierriin, euskaraz goxo-goxo" lelopean, euskarearen erabilerea bultzatzeko ekintzak egiten gabilz. Halan, 15 egunetik 15 egunera herri baten biltzen gara eta gune bat ipinten dogu, jentea etorri eta euskeraz egin daian. Ekintzok oso harrrera ona daukie orokorrean".

#### Okupazinoaren kronika

Hogeigarren urteurrena dala-eta, Zamudioko gazteek ekitaldi ezbardinak antolatuko ditue urte osoan zehar. "Hil bakotzeko hirugarren barikuan zerbait egitea pentsau dogu. Urtarrilean, adibidez, asanblada irekia egin genduan oraingo eta lehengo kideen artean, eta otsailean, argazki erakusketa bat. ZGAK

aurrera eroan eban okupazinoaren kronika bat egiteko asmoa be badaukagu, eta herriko jenteagaz bideo bat grabauko dogu". Ekintzak zehaztu ahala emongo dabe hareen barri.

Gazteen ohiturak be asko aldatu dira hamarkada bi honeetan. Orain dala urte batzuk, esate baterako, modan ipini ziran gazteen lonjak eta normaltzat jotzen dan fenomeno da gaur egun; pentsauezina, Aneren garaian. "Beno, Zamudio herri txikia da eta gazte guztiek ezagutzen dabe alkar. Baina egia da, gazte lokal bat egongo balitz, bertan adin eta gustu askotarikozko gazteak batuko liratekela. Eta horrek, azken baten, hartu-emon ahalbidetzen dau", esan dau Nereak. Eretxi berekoa da Maider. Beraz, beharrean jarraituko dabe, "oraindik gauza asko dagozala egiteko", herriko gazteen beharrezanez ahotza emoten, eta ekitaldiak antolatzen.



Gazte Eguna IGAK urtean zehar antolatzen dauen ekintzarik indartsuena da, zalantza barik. Hiru egunetan egingo dabe aurten: apirilaren 10ean, 11n eta 14an. "Barikua umeei zuzenduta egongo da eta, besteak beste, jolasak eta hainbat tailer egongo dira. Zapatua gazteen eguna izan-

## Gazte Eguna

go da. Txupinazoa goizeko 10etan botako dogu eta egunean zehar honeek eukiko doguz: gazte eskaintza, trikipoteoa, bazkaria, olinpiadak, Sakatu elektrotxaranga eta ekitaldia. Kontzertuak gaueko 11etan hasiko dira: Haxotz, Txapelpunk, Garilak 26 eta sorpresa bat. Bestalde, apirilaren 14an, martitzenean, brindisa egingo dogu. Meriendea prestauko dogu eta Daltondarrak taldeak kontzertua eskiniko dau. Susterrak tabernan izango da".


Zamudioko Gazte Eguna sasoian dagoan jaialdi bat da, bai lehen, bai orain. "Urterik urte joan zan indarra hartzen. Bazkaria egiten genduan hasieran, gero txosnea ipini, kontzertuak ekarri...", gogoratu dau Anek. "Batez be, aurreko eta os-

teko egunak oso gogorak zirala gogoratzen dot nik", esan dau Nereak. "Goizeko 7etan gelditu eta hurrengo egunean goizeko 10etan, beharbada, ailegaten ginan etxera, baina ez parrandan ibili ginalako, ez, beharrean ibili ginalako baino: dana lotu, txosnea montau, txandea egin, desmontau, plazea garbitu...".

Zamudio eta Txorierriko gazteak ez ezik, Algorta edo Elorrio lako herrietako gazteak batzen dira Gazte Egunean. "Guraso askok be hartzen dabe parte, eta seme-alabak plazara ekarten ditue. Kontzertuetan be gazte asko biltzen dira". Gazte Asanbladako kide ohiak be han izaten dira. "Txandaren bat egiten dogu txosnan... Noski, nostalgiaz ikusten da. Gaztezaroagaz gogoratu eta hunkitzen zara".

# Zenbat hitz ezagutzen dituzu euskaraz?

*"Hiztegi proba" jokoa  
hitz bat euskara  
estandarrekoa den ala  
ez erabakitzean datza*



"Hiztegi proba" onlineko jokoa da, eta hitz bat euskara estandarrekoa den ala ez erabakitzean datza. Aplikazioa Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL) erakundearen eta Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuaren egitasmoa da, eta <http://hiztegi.bcbl.eu> webgunean ipini dute eskuragarri.

Aplikazioa plataforma higigarrietarako (tabletak eta interneterako konexioa duten telefonoak) zein ordenagailuetarako egin dute. Jokalariak pantailan agertzen den hitza euskaraz existitzen den ala ez erabaki beharko du. Proba egin ostean, aplikazioak erabiltzaileak euskaraz

ezagutzen duen hitzen ehunekoa adierazten du. Era berean, ezagutzen ez diren hitzen esanahia zuzenean kontsultatzeko aukera ematen du. Proba nahi beste aldiz errepika daiteke eta saialdi bakoitzean 100 hitz agertuko dira. Proba errepikatzen den bakoitzean hitz berriak agertuko dira.

Sustatzaileek azaldu duten bezala, egitasmoak euskaldunen hiztegi maila neurtzea du helburu; bai euskara ama hizkuntza dutenen hiztegi maila, bai euskara bigarren hizkuntza dutenena zein euskara ikasten dabilzanena. Horrezaz gainera, tresna baliagarria da irakurleek

euskarazko material idatzia nola desko-  
deatu eta prozesatzen duten ulertzeko.

Hitzak pantailan agertzen denetik jokalaria erantzuten duen arte pasatzen den denbora, hau da, hitz bakoitzari dagokion erreakzio denbora, datu base batera bidaltzen da. Datu base hori etengabe handitzen doa, eta laster jakin ahalko da, 25.000 euskarazko hitz baino gehiago irakurtzeko, batzaz beste zenbat denbora behar den.

## #hitzaedoez

Jon Andoni Duñabeitia proiektuaren ikertzaileetarikoa da. Bere esanetan, aplikazioak ahalbidetuko du eskualde ezberdinetako hizkuntza-eskakizun ezberdina duten dozenaka mila euskal hiztunek ezagutzen duten euskal hiztegiaren estimazio objektiboa izatea. Horrezaz gainera, informazio horri esker, ikertzaileek hitzak euskaraz irakurtzeari lotuta dauden mekanismo psikolinguistikoak ikeritzeko balio handiko materiala jasoko dute. "Behin euskal hiztun natibo eta ez natiboen zenbateko esanguratsu baten datuak jasoz gero, hitz solteak euskaraz zelan irakurtzen ditugun jakingo dugu, eta burmuinak material idatziarekin nola lan egiten duen ondorioztatu ahalko dugu" esan du, bere aldetik, Manuel Carreirasek, BCBL erakundearen zuzendaria denak.

Facebook eta Twitter (#hitzaedoez) bezalako sare sozialei esker, jokoa hedapen handia izatea espero dute, eta mundu osoko euskal hiztunengana iristea.

**MAS X MENOS**  
Janari-denda  
Prezio paregabeak

Bestorrene, 3 DERIO  
670 60 70 41

**LOREGARBI** GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokorrean  
Asanblak garbi-ikusiak  
Mantimintak garbi-ikusiak  
Belagorak eta lokatut  
Otroa emateko garbi-ikusiak  
Baximintak  
Zabur bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa  
48160 DERIO (Bizkaia)  
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92  
656 712 443  
Fax: 94 406 49 93

**Ale-apaindegia**  
M<sup>a</sup> Antonia Llodio

Txorierrito etorbidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)





# Irakurri bai, baina zein hizkuntzatan eta zelan?

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

AIKOR! aldizkari dotorea irakurri egiten da; ez entzun. Entzuteko -adibidez- politikoen diskurtsoak dira, agintarienak, baina haiek ere, gehienetan irakurri egiten dute jendaurrean. Beraz, kontua da, ea zelan irakurtzen duten? Niretzat politikoen irakurketarik gehienak zebra-bidez betetako errepideak dira: irakurketa desegokiak, mezuaren ulermena oztopatzen dutenak. Zergatik? Bada, irakurketa ozena denean, hizkuntzaren alde fonikoa kontuan hartzen ez dutelako: *erre dezaket* ahozko euskararen unitate bakarra da, azentu bakarrekoa. Gehienek, ordea, unitate bikotzat hartuta, gaztelaniaz egiten den antzera: *érre dezaket* irakurtzen dute. Politiko horiek, gazteak, ikasketadunak, hola leitzen badute, izango da eskoletan nahiz unibertsitatean ere horrela irakasten dutelako -eta hori ez da Wert arrotzaren errua-.

Isilean "leiduten" dugunean, bestalde, zein hizkuntzatan irakurtzen dugu? Eta, zein berbetatan errazago: euskaraz ala gaztelaraz edo frantsesez edo ingelesez? Gordinago esanda, gutariko askotxok, zer dela-eta irakurtzen du gozoago gaztelaraz euskaraz baino?

Kasu batzuetan, testua era egokian idatzi ez delako. Eskolak, sarri, esaldi gramatikalki zuzenak egiten irakasten du, baina ez testuak idazten. Eta, berez, testu-antolatzaileak-eta horretarakoxe dira.

Dena den, esaldiak eurak ere hobetu daitezke. Ez dira berdin: *Eman duzun guztia* eta *Eman // duzun guztia!* Bigarrenen: *Eman daukazu guztia!* ulergarriagoa da, *duzun* barik *daukazu* sartuta. Halako oztipoa, euli bakarra, ez da traba handirik, baina euli askok ilundu egiten du irakurketa, bai entzuleentzat baita isileko irakurleentzat

**elekma**  
URRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK, TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TROKAK  
Leherengo markak • Prezioak onenak  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**  
Tecnari etorbidea, 25/3. N. • 48180 Lodu  
T: 944 539 232  
[www.elekma.es](http://www.elekma.es)

**ELORRIETA INSTALACIONES**  
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA  
Uribe kalea, 12 beheko Denia 48160  
94 454 03 86  
**639 57 98 48 - 639 58 25 47**

  
**TALLERES JUAN ANDRES**  
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA  
PUNTUAN JARTZEA  
Torrelarragoti ind., 8 - 216 Pab.  
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**LEANDRO LANDETA**  
  
**HARAGITEGIA-URDAITEGIA**  
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

**TXORIERRI MARMOLDEGIA**  
Sukalde eta bainugeletako harriak  
Fatxadak • Atariak • Hilerriak  
Torrelarragoti ind., 7 B P. - 2. nabea  
48170 Zamudio (Bizkaia)  
T./F.: 94 608 01 41-2

**TURREGOITI JATETXEA**  
Laurola etorbidea, 27  
48180 Lodu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
[restauranteturregoiti.com](http://restauranteturregoiti.com)



**Etxeko sukaldaritza****Berdela, saltsa berdean***t: Maite Lekerika***Osagaiak (4 lagunentzat):**

- 4 berdel (hazurra kenduta)
- Zainzuri-lata bat (ertaina)
- 16 txirla eder
- Perejila
- Oliba orio-zurrusta bat
- Ardao zuri-zurrusta bat
- Koilarakada erdi urin
- 4 berakatz-atal
- Kipula erdia (tiratan)

**Prestetako erea:**

Eltze baten orioa ipiniko dogu. Kipulea eta berakatzak gehitu eta erregosiko doguz. Zainzuri ura eta ardao zuria urinagaz nahastuko dogu. Barazkiei gehituko deutsegu. Perejila, zainzuriak eta txirlak botako doguz. Eltzeari estalgia ipini eta su eztitan eukiko dogu, harik eta txirlak zabalitzen diran arte. Berdel-xerrak kontu handiz sartuko doguz. Estalgia ipini eta su eztitan bost minutuan eukiko dogu. Saltsea lodiegi badago, ur apur bat gehituko dogu.

**Gaztai frijitua****Osagaiak:**

- Gaztai txikiak (hotz-hotzak)
- Ogi arraspaua
- Arrautza
- Orioa
- Mermelada

**Prestetako erea:**

Gaztai txikiak arrautzatik eta ogi arraspautik pasako doguz bi aldiz. Halan, gaztaia zanpatzea ekidingo dogu. 5 edo 10 minutuan izango doguz jalgiten eta ondoren, fritituko doguz. Zartaginetik ateraten doguzanean, paper xurgatzailearen gainean ipini daikeguz, gehiegizko orioa kentzeko. Gurago dogun mermeladagaz atera daikeguz mahaia-  
ra.

Construcciones-Reformas  
**IÑIGO BARCENA**  
Igeltserotza orokorra



Arbolantxa kalea, 5 - 1.ºz.  
ZAMUDIO  
Tel/Fax: 94 452 29 10  
Mobila: 665 70 33 12



**luz zamudio**  
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60  
48170 Zamudio - Bizkaia

**Iñaki** 94 455 65 08  
**Jabi** 94 452 14 31

**Magalarte Txakolina**

ARETXARALETA UGODA ETA NOTIARATUA

Bizkaiko Txakolina  
Denominación de Origen

75 cl. 10,75 % vol.

Linea 1-45



**hotela  
jaketxea  
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefona: 94 403 69 00  
Faxe: 94 403 69 01  
e-mail: hotel@aretxarte.com  
e-mail: reservas@aretxarte.com  
www.aretxarte.com





## Zer irakurri?

Maria Jesus Kareaga (Liluraturia)

**Egilea:** Uxue Alberdi  
**Argazkia:** Felipe Manterola  
**Argitaletxea:** Elkar  
**Orrialdeak:** 123  
**Adina:** helduentzat

Uxue Alberdik, hiru emakume apartaren bidez –Teresa, Martina eta Eulali–, bere lehendabiziko eleberrian kontatzen diguna bizitzaren metafora bat dela esan daiteke. Emakumeok ixabelen gozotegian biltzen dira arratsaldero, beste batzuekin, eta guztien artean mila urte egiten dute. Zenbaki adierazgarria da haien zatitza.

Eleberrian, lehenaldia eta orainaldia tartekatzen dira. Alde batetik, haurtzarorako eta gaztarorako bizi izandako pasadizotak, jolasean, familian, lanean, gudan...; eta bestetik, zahartzaroko ajeak, egunero esertzen diren aulkiei oratuta, bizirik daukela esateko modua balitz bezala.


## Aulki jokoa



*Aulki jokoa* liburua atsegin eta erraz irakurtzen da. Pertsonaien denboraldiak nahastuta, hikaz idatzitako pasarteak sar-

tuta eta elkarriketak tartekatuta, abiaduraz hartzen du irakurketak. Andra hauen historia irakurtzen badugu, ez dugu ezer alferrik galduko; guztiz entretenigarria da. Teresa nagusia da, eta beharbada, konformagaitzena. Martina onegia da, etxean eta dendan, eta azkenean Eutimioarekin ezkontzen dena. Eulali txikitari gelditu zen gor belarri batetik, jolasten zebilela, eta gaur egun bestetik ere ez du entzuten.

Liburuan kontatzen diren pasadizoen artean, bi iruditzen zaizkit bitxiak. Bata zilborraren koloreari buruzkoa da. Emakumeek herriko kasta galtzen ari dela pentsatzen dute, gaurkoek zilbor zuria dutelako, eta lehengoek, berriz, marroizka, harik eta konturatu ziren arte, emaginak erabiltzen zituen artazi herdoiltzuek ematen zieten kolorea. Eta bestea, mutilek gaztetan egiten zuten apustua, ea nork ematen zuen denbora gehien burua urpean zutela. Horretan, Eutimio izaten zen garailea, baina pasadizoa kontatzen dabiltzala Martinak begi-keinua egin dio senarrari.



## Erakusketak

### Sondika

- > San Joan jaietako kartelak. Apirilaren 14tik 29ra, Erakusketa Aretoan.

### Derio

- > "Ibaialde 2015". Apirilaren 14ra arte, Kultur Birikan.
- > "Gorbeia Derion". Apirilaren 9tik 29ra, Kultur Birikan. Udalak eta Untza mendi taldeak antolatua. Gontzal Mendibilek eta Iñaki Garcia Uribek inaugurazio-ekitaldian hartuko dute parte, apirilaren 9an, 19:30ean. Apirilaren 18an, 12:00etan, bisita gidatua egingo da.

## Hitzaldiak

### Derio

- > "Gorbeia, mitoak eta euskara". Apirilaren 16an, 19:30ean, Kultur Birikan. Manu Etxebarria Ayestaren eskutik.
- > "Euskal mendizaletasunaren mende bat", Iñaki Garcia Uriberen eskutik. Apirilaren 23an, 19:30ean, Kultur Birikan.

### Zamudio

- > "Bularra miatzea". Apirilaren 17an, 18:30ean, eskolan.

## Ikastaroak

### Derio

- > "Elikadura segurtasuna". Apirilaren 22an, 17:30ean, Nagusien Etxean.

### Lezama

- > Pate begetalak. Apirilaren 24an, 18:30etik 20:30era, Goitioltzako txokoran. Izena ematea: apirilaren 22a baino lehenago, liburutegian.

## Ikuskizunak

### Sondika

- > Ixabel Millet ipuin kontalaria. Apirilaren 24an, 18:00etan, liburutegian.

### Derio

- > Umeentzako ipuin kontalaria, Eneritz Artetxeren eskutik. Apirilaren 23an, 17:30ean, Kultur Birikan. Izena ematea, apirilaren 13tik aurrera, liburutegian.
- > *La tetera* antzezlan, Sutondoan elkar-tearen eskutik. Apirilaren 25ean eta 26an, 19:00etan, Gurea Aretoan.

### Zamudio

- > *Monda eta Lironda detektibeak*. Apirilaren 25ean, 11:30ean, liburutegian.

## Irteerak

### Zamudio

- > Iparralde. Apirilaren 18an eta 19an. Lagatzu euskara elkarteak eta Arroeta mendi taldeak antolatua.

### Lezama

- > Atxarreko San Pedro basiliza (Ibarrangelu). Apirilaren 19an, 9:30ean, Lezamako eskolan.
- > Joar (Kodeseko mendiak). Apirilaren 25ean, 8:30ean, Herriko plazan.

### Larrabetzu

- > Garmitxaren III. martxa. Apirilaren 19an, 10:00etan, plazan. Garmitxak eta guraso elkarteak antolatua.
- > Idauze-Mendiko maskarada. Apirilaren 19an, Bizkargai dantza taldeak antolatua.

## Lehiaketak

### Sondika

- > Balkoi apainduen lehiaketa. Izena ematea, apirilaren 13tik 23ra, liburutegian.

## Musika

### Larrabetzu

- > Lurra. Apirilaren 12an, 18:30ean, Hori Bai gatzetxean.

## Bestelakoak

### Derio

- > Piperdun flamenko taldearen aurkezpena. Apirilaren 11n, 17:30ean, frontoian.
- > Tokiko Agenda 21. Apirilaren 22an, 19:30ean, Kultur Birikan.

### Zamudio

- > "Irakurri, gozatu eta oparitu" kanpaina. Apirilaren 23tik ekainaren 23ra arte, Lagatzu euskara elkarteak antolatua.

### Larrabetzu

- > Liburuaren Eguna. Apirilaren 23an. Liburutegira bisita gidatua, irakurketa kluba...
- > Umeentzako irakurketa saioak. Apirilaren 24an, 16:30etik aurrera, liburutegian.





## ZELAN?

### POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(\*) bete eta bidali:  
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

### E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

### TELEFONOZ:

94 452 34 47  
688 86 41 35

### AHOZ:

Zure herriko euskara  
elkarteko kideren bati esan

(\*) Fitxa aldizkarian bertan eta  
erakundeetan, liburategietan,  
komertzioetan... utziko ditugun  
diptikoetan topatuko duzue.



## Egin zaitez Aikor!lagun

**Etxe bat, lagun bat**



## Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

e-posta: \_\_\_\_\_

IBAN+Bankuko zenbakiak: \_\_\_\_\_

Urteko kuota: \_\_\_\_\_

Aldizkaria jasotzen duzu? \_\_\_\_\_

Sinadura \_\_\_\_\_

30 euro \_\_\_\_\_ Beste bat \_\_\_\_\_

Orri hau helbide honetara bidali:

**Aikor! Aldizkaria**

**Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio**



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO ELUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko duzu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).



# Lainomendi

taldearen 25. urteurrena

**Apirilak 18**  
larunbata

**Egun osoko jaia**

11:00 **Jolasak** (Sollube kalean.  
Euria bada, frontoian)

13:00 **Trikipoteoa**

14:30 **Herri bazkaria**  
(Frontoian)

Nagusia: 18€ - Umeak 15€

TIKETAK SALGAI ostiraletan  
18:00-20:00 Kultur Birikan

ERRESERBAK monitoreen  
bidez, 615 73 48 68 telefonoan  
edo lainomendi@gmail.com  
emailean (apirilak II arte)

18:00 **Erromeria**  
**ARIZGOITI**

**Apirilak 19**  
igandea

**Dantza agerraldia**

Talde gonbidatuak:

**ESKUALDEKO taldeak**  
**Errekaldeko ARRAIZPE**

11:30 **Kalejira**  
(Aldekonetik hasita)

12:00 **Dantza agerraldia**  
(eskola alboko  
aparkalekuan)

